



Euskadiko gorroto-gertakariei buruzko 2024ko txostena





**EUSKADIKO
GORROTO-GERTAKARIEI BURUZKO
2024ko TXOSTENA**

Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Zuzendaritza eta Koordinazioa:
Jon-Mirena LANDA GOROSTIZA Dk. irak. (Zuz.)
Enara GARRO CARRERA Dk. irak. (Koord.)

Lantaldea:
Mikel ANDEREZ BELATEGI Dk. irak.
Aitor BIKANDI ESKUTZA Dk.
Bertha GAZTELUMENDI CABALLERO
Iñigo GORDON BENITO Dk. irak

Segurtasun Saila
Eusko Jaurlaritza


Vitoria-Gasteiz/Leioa,
2025eko maiatza



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea





Aurkibidea

LABURDURAK → 6	
SARRERA → 8	
1. GORROTO GERTAKARIAK 2024an → 11	
1.1. GORROTO DELITUEN BANAKETA → 14	
1.1.1.	Gorroto delituen sailkapena, kolektibo babestuaren arabera → 14
1.1.2.	Gorroto delituen sailkapena, delitu tipologiaren arabera → 20
1.1.3.	Gorroto delituen banaketa espaziala → 23
1.1.4.	Gorroto delituen denbora-banaketa → 32
1.2. EGOZPENEN BANAKETA → 40	
1.3. ATXILOKETEN BANAKETA → 49	
1.4. BIKTIMIZAZIOEN BANAKETA → 54	
1.5. ONDORIOAK → 63	
1.5.1.	Gertakerien kopurua, guztira → 63
1.5.2.	Gertakarien jomuga-kolektiboen mapa → 64
1.5.3.	Delitu tipologiak → 65
1.5.4.	Espazio-denboraren banaketa, ikertutako pertsonak, atxilotuak eta gorroto delituen biktimak → 66
1.5.5.	Euskadiren gorroto mapa Estatuaren testuinguruan → 68
2. DATU OFIZIAL EGUNERATUEN ESPARRU KONPARATUA → 71	
2.1. ERRESUMA BATUA → 72	
2.1.1.	Errealitate enpirikoa, OSCEtik ateratako datuen arabera → 72
2.1.2.	Datuen eguneratzea: Eskozia → 73
2.1.3.	Beste datu batzuen eguneratzea: Ipar Irlanda → 76
2.1.4.	Beste datu batzuen eguneratzea: Ingalaterra eta Gales → 79
2.2. FRANTZIA → 82	
2.2.1.	Errealitate enpirikoa, OSCEtik ateratako datuen arabera → 82
2.2.2.	Errealitate enpirikoara hurbilketa: beste datu batzuk → 83



Aurkibidea

2.3. ALEMANIA → 88

2.3.1. Errealitate enpirikoa, OSCEtik ateratako datuen arabera → 88

2.3.2. Errealitate enpirikora hurbilketa: beste datu batzuk → 89

2.4. LABURPENA ETA HAUSNARKETA KONPARATUAK → 91

2.4.1. Erresuma Batua → 91

2.4.1.1. ESLA/OSCE → 91

2.4.1.2. Beste datuak → 91

2.4.2. Frantzia → 94

2.4.2.1. ESLA/OSCE → 94

2.4.2.2. Beste datuak → 94

2.4.3. Alemania → 95

2.4.3.1. ESLA/OSCE → 95

2.4.3.2. Beste datuak → 95

3. ERABEREAN SAREAREN TXOSTENAK → 97

4. LABURPENA ETA AZKEN ONDORIOAK → 101

5. BIBLIOGRAFIA ETA IRUDIEN AURKIBIDEA → 107

6. I. ERANSKINA. Prentsan nabarmendu diren kasuak 2024ean → 115

7. II. ERANSKINA. EAeko Fiskal Nagusiaren eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2024ko (2023ko EKITALDIA) Memorien laburpena → 147



Laburdurak

art.	Artikulu(k)
Bol.	Bolumena
CHS	Criminal History System (Eskozia)
CNCDH	Commission Nationale Consultative des Droits de l'Homme (Frantzia)
COPFS	Crown Office and Procurator Fiscal Service (Eskozia)
CPS	Crown Prosecution Service (Ingalaterra eta Gales)
CRMS	Contact Record Management System (Ipar Irlanda)
CSEW	Crime Survey for England and Wales (Ingalaterra y Gales)
DILCRAH	Arrazakeriaren, antisemitismoaren eta LGTBI kolektiboaren kontrako gorrotoaren aurkako ministerio-arteko ordezkaritza (Frantzia)
Dk.	Doktorea
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
ECRI	Arrazakeria eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea
ESLA/OSCE	Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundea/Organization for Security and Co operation in Europe
FGE	Espainiako Estatuko Fiskaltza Nagusia / Fiscalía General del Estado
FRA	Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentzia
Ibid.	Ibidem
INE	Espainiako Estatistika Institutua/Instituto Nacional de Estadística
Irak.	Irakaslea
IVDP	Interim Vulnerable Persons Database (Eskozia)
Koord.	Koordinatzailea(k)
KPMD-PMK	Polizia kriminalaren politikoki motibatutako kriminalitateari buruzko informazio-zerbitzua (Alemania)
LGTB(I)	Lesbiana, Gay, Transexual, Bisexual eta Intersexualak
LO	Lege Organikoa
M	Milioiak





N	Unibertsoaren tamaina (datu multzo osoa)
n	Laginaren tamaina (datu multzoaren hautapena)
OCLCTIC/SDLC	Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan oinarritutako kriminalitatearen aurkako bulego nagusia (Frantzia)
ODIHR	Erakunde Demokratiko eta Giza Eskubideetarako Bulegoa (ESLA/OSCE)
ONDRP	Delinkuentziaren eta Erantzun Penalen Behatoki Nazionala (Frantzia)
op. cit.	Goian zitatuta
or.	Orrialdea(k)
OSR	Office for Statistics Regulation (Erresuma Batua)
PHAROS	Salaketak harmonizatzeko, aztertze, berreskuratzeko eta orientatzeko plataforma (Frantzia)
PKL	Prozedura Kriminalako Legea (Espainia)
PPS(NI)	Public Prosecution Service for Northern Ireland (Ipar Irlanda)
PSNI	Police Service of Northern Ireland (Ipar Irlanda)
Rec.	Helegitea
RJ	Aranzadi Jurisprudentzia Biltegia
SCRT	Servicio Central de Información Territorial (Frantzia)
SSMSI	Servicio Estadístico Ministerial de la Seguridad Interior (Frantzia)
THESEE	Tramitación armonizada de las investigaciones e informes sobre estafas electrónicas
Vol.	Volumen
$\bar{x}$	Batez besteko aritmetikoa
$\tilde{x}$	Mediana
zk.	Zenbakia
ZK	1995eko Zigor Kodea (Espainia)
Zlz	Zuzendaria(k)



Sarrera

Txosten hau dagoeneko zortzigarrena da **2018ko ekainaren 4an Eusko Legebiltzarrean** (Erakunde, Segurtasun eta Gobernantza Publikoaren Batzordea) Euskadiko gorroto gertakariei buruzko lehen txosten ofiziala aurkeztu zenetik. Beraz, **segidako 9 urtekoren datuak** aztertu ditugu (**2016-2024**), eta horrek tresna kontsolidatu bihurtzen du txostena, geroko edizioetan ematen diren emaitzen balorazioari buruzko nolabaiteko ikuspegia ere ematen duena.

Txostenak, hau errepikatzea komenigarria da, lehenik eta behin, epe ertain eta luzean gorroto kriminalitatearen ezagutza, prebentzioa eta desagerrarazte eraginkorrena hobetu ahal izatea bilatzen du, arlo horretako barne-gomendioekin bat etorritik¹. Gainera, bigarrenik, eragile juridikoekiko koordinazioa erraztu nahi du, eta txostena elementu lagungarri bihur dadin sustatu, gorroto delituen lan-esperientzia estatuko eta nazioarteko instantzietara eramateko. Nolanahi ere, komeni da berririo aipatzea azterlanaren oinarria polizia-gertakaria dela, eta ez prozedura judizial baten eta epai irmo baten ondoren egiaztatutako delitu bat. Hala ere, txosten osoan zehar, "gertakari" eta "delitu" erabiliko dira baliokide gisa, diskurtso-jarioa errazteko. "Gorroto delitua", ordea, ez da inoiz halakotzat hartu behar zentzu hertsian, ez bait da egiaztatutako prozedura judizialaren ondoren dagokion kondena irmoa gertatu den fasean. Beraz, delitu-fenomeno horri buruzko informazio zehatza eta partziala ematen du, eta horrek ez du baztertzen, aitzitik, beste informazio-iturri batzuetara jotzeko beharra, hala nola estatistika judizialera edo iturri akademikoetara. Nolanahi ere, gure inguruko esperientziagatik, poliziaren estatistika funtsezko informazioa da, eta trakzio-elementu estrategikoa izan da gorroto kriminalitateari seriotasunez eta erabakitasez aurre egitea erabaki den herrialdeetan.

Euskadiko Gorroto Gertakariei buruzko Txosten hau 2024ko **urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra** bitarteko aldiari dagokio, eta Ertzaintzak antzemandako, bere izaera eta inguruabarrak direla-eta, delituak izan daitezkeen gertakariak biltzen ditu. Halaber, komeni da gogoraraztea 2023an Ertzaintzak polaritate-adierazleak berrikusi eta egokitu zituela, bere ustez Euskadin gertatzen diren gorroto gertakarien errealitate zehatzagoa ematen baitute.

2024 Txostenak egitura benetan finkatua du. Lehenik eta behin, azken urteetan egin den bezala, delituak izan daitezkeen 2024ko gorroto gertakarien informazioa eta azterketa jorratzen dira (lehenengo atala). Lehen zati horri amaiera emateko, azken urteko bilakaerari eta Estatuko eremuarekin alderatzeari buruzko ondorioen multzo bat osatu da, eta txostenaren azken ondorioetarako (laugarren atala) laburpen bat eta ondorio egokiagoak utzi dira, konparaziozko ikuspegi europarrarekin alderatuta. Atal honetako berritasun gisa, aurtan, batetik, aberastu egin da espazioaren, denboraren eta atxiloten banaketari buruzko datuen azterketa eta aurkezpena; eta bestetik, Estatuko eta Euskadiko zifren arteko konparaketa sakondu egin da.

1. Ministroen Batzordeak estatu kideei egindako gorroto delituen aurkako borrokari buruzko CM/Rec (2024) 4 Gomendioaren 35. paragrafoaren arabera (Ministroen Batzordeak onartu zuen, 2024ko maiatzaren 7an, ministroen ordezkarien 1498. bileran): "Poliziak ikuspegi komuna garatu beharko luke gorroto

delituak aitortzeko, ezagutarazteko eta ofizialki erregistratzeko, eta gorrotoak eragindako gertakariak, delituak ez badira, behar bezala aitortzen direla bermatu beharko luke, ECRIren Politika Orokorreko 11. gomendioak emandako orientabideekin bat eginez. (...)".





Bigarrenik, Europako eremuarekin konparatutako azterlanaren berri eman da (bigarren puntua). Aurten, aurrekoek bezala, atal honetan gure kultura juridikoko herrialde garrantzitsuenen datuak eguneratu dira (Alemania, Frantzia, Ingalaterra eta Gales), baita Eskoziakoak eta Ipar Irlandakoak ere. Horrela, gai honetan tradizio eta pisu demografiko handia duten herrialdeekin eta gureatik gertuago dagoen esperientzia federala duten herrialdeekin alderatzeko ikuspegia bateratu eta eguneratzen da. Horrela, herrialde horietako datuen bilakaeraren jarraipena egin daiteke, aurreko txostenetan adierazitako ahaleginen argitan.

Hirugarrenik, aurten babestutako kolektiboekin lan egiten duten elkarten txostenak ere aipatzen dira. Eraberean Sareak 2024an egindako jarduerari buruz egindako txostena ere kontuan hartu da, eta dago-kion atalean aztertuko da.

Azkenik, Txostena amaitzeko, laburpenaren eta ondorioen ohiko azken blokea ageri da. Multzo horren ondoren, tresnei buruzko (bibliografia, irudien aurkibidea) eta informazioari buruzko (I. eta II. eranskinak: prentsan nabarmendutako kasuak; EAEko Fiskal Nagusiaren eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Memo-rien laburpena, hurrenez hurren) atalak daude.





1.




Gorroto gertakariak 2024an



2024an² delituzkoak izan daitezkeen 236 gorroto gertakari erregistratu dira Euskadin³. Arau-hauste administratibo bat erregistratu da⁴. Hurrengo grafikoak gorroto delituek azken 9 urteetan izan duten bilakaera erakusten du. Ikus daitekeenez, 2022ra arteko hazkunde garaia ostean, delituak izan daitezkeen gertakarien kopuruak nabarmen egin zuen behera azken bi urteetan, 2020 eta 2021eko maila-tara itzuliz. 2023ko gertakarien kopuru globala %35 jaisten zen 2022koarekin (N=435) alderatuta, 2021eko maila-tara bueltatu da, 2023koaren konparatuta (N=281) ikusten den %16ko jaitsierak osatzen du simetria, joera egiaztatuz eta 2021eko mailatik (N=241) zertxobait azpitik kokatuz.

Nolanahi ere, gertakari kopurua handia izaten jarraitzen du, pandemiaren aurreko azken urtearekin alderatuta (2019, N=105). Euskadin erregistratutako gertakariak mantentzen duten gutxieneko kopuru zabala azaltzeko kontuan izan behar dira, beste txosten batzuetan adierazi den bezala, datuen bilketan eta erregistroan metatutako eskarmentua, Ertzaintzaren eta Unibertsitatearen arteko baterako lana eta prestakuntzaren areagotzea; azken batean, mota horretako gertakari buruzko informazioaren detekzioa eta zentralizazioa aldatu eta hobetu izana. Bestalde, generoak motibatutako gertakarien kopuruak beheranzko joerari eusten dio, bereziki garrantzitsua izan zen 2022ko mugarrira kontuan izanda (orduan gertakarien %15a izan ziren). 2023an erregistratutako gertakarien %6a izan baziren ziren, 2024an %3,8ra jaitsi ziren.

1. Irudia GORROTO DELITUAK (2016-2024)



2. Txosten honetan jasotako gertakariak 2024an erregistratutako gertakariak dira, urte horretan gertatu diren edo ez kontuan hartu gabe. Izan ere, 9 delitu aurreko urteetan egin ziren, 8 delitu 2023an eta delitu bat 2021ean.

3. Sarreran adierazi dugunez, txosten osoan «delitu izan daitekeen gertakaria» eta «gorroto delitua» terminologia erabiltzen da baliokide gisa, diskurtsoaren arintasuna errazteko. «Gorroto delitua», ordea, ez da inoiz halakotzat hartu behar zentzu hertsian, prozedura judicialaren ondoren dagokion kondena irmoa gertatu den fasean egiaztatuz ez delako.

4. Arau-hauste administratibo hori kiroleko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legeari lotuta erregistratu zen. Mendizorrotzako Udal Estadioan gertatu zen, 2025eko azaroaren 1ean, Deportivo Alavés eta Real Club Deportivo Mallorca taldeen arteko futbol partida batean. Partida hartan, ikusle batek irain arrazistak egin zizkion barrutiko segurtasun zainzaile bati.





Pandemiaren aurreko garaian dagokionez, gertakari kopurua altu samarra izaten jarraitzen duela alde batera utzita, berritasun garrantzitsu bat aipatu behar da, bereziki, "genero-arrazoiei" buruzko gertakarien murrizketari dagokionez. 2023an beste aldaketa substantibo bat gertatu zen⁵. Harrezkero, Ertzaintzaren Koordinazio eta Lankidetzarako Unitatearen barruan dagoen Koordinazio Operatibo eta Ikerketa Teknikorako Atala (SCOTI) arduratzen da gorroto delituak eta gertakariak aztertzeaz eta kudeatzeaz. Ertzaintzaren Ikerketa Kriminalleko Dibisioaren organigramaren barruan horrelako jokabideak tratatzeko jauzi kualitatibo hori erabaki estrategikoa da, fenomeno kriminal horren aurkako borroka eta prebentzioa indartzeko. SCOTIk zeregin hori bere gain hartzeko, gainera, doikuntza-irizpide batzuk ezarri zituen helburu bikoitza zuten gorroto gertakariak ikertzeko eta erregistratzeko orduan: alde batetik, iraganean detektatzen ziren eta itxuraz gorrotokoak ziren gertakari batzuk aintzat hartu gabe uztea; eta, bestetik, genero-arrazoiei dagokienez bereziki, talde horretako gorroto delituen erregistroaren artean koordinazio-lan bat hastea, zentzu hertsian indarkeria matxista eta genero-indarkeria kasuetara bideratu behar direnentzat. 2022ko txostenak ohartarazten zuen genero-arrazoiengatik gertakariak, biztanleriaren erdiari potentzialki eragiten dioten neurrian eta larritasun-patroi oso zorrotz bati erantzuten dioten heinean, Euskadiko gorroto mapa desitxuratzeko arriskua zutela. Horregatik, emakumeen aurkako indarkeria matxistako gertakarien eta genero-arrazoiengatik beste gorroto gertakari batzuen artean banatzeko irizpideak findu eta sendotu egin dira aurtengo, horrelako jokabide gehienak txosten honen eremutik kanpo birbideratzearen ondorioz.

Nolanahi ere, aurtengo zifrak (N=236), aurreko hamarkadaren amaieran erregistratzen ziren mailen gainetik ($\bar{x}$ =105-130) egonda, goranzko joera globala markatzen du, txosten honen hasierako eta egiturazko helburuarekin bat datorrena, hots, zifra beltza pixkanaka murrizten joatea⁶ ikuspegi orokor batetik⁷ zerra-hortzen forma har dezaketeen arren.

5. Komeni da gogoratzea 2020an erregistro-sistemaren lehen berrantolaketa eta doikuntza bat egin zela, guztizko zifretan goranzko jauzi kualitatibo bat ahalbidetu zuena: txosten hau oinarri berri horren jarraitutasun-lerroan dago, eta 2020aren aurreko urkilatik urrun.

6. LGorroto delituen zifra beltza salatzen ez diren delituek osatzen dute, eta beraz, Segurtasun Indar eta Kidegoek ez dituzte delitu horiek ezagutzen. VOZ-MEDIANO SANZ, L./SAN JUAN GUILLÉN, C., Criminología ambiental: ecología del delito y de la seguridad. UOC argitaletxea: Bartzelona, 2010, passim. Ikerketa batzuek, Oinarritzko Eskubideen Europako Agentziaren datuetan oinarrituta (FRA ingelesezko sigletan), zifra beltz hori %80-90 inguruan kokatzen dute, erreferentziazko kolektiboaren artean aldeak dauden arren. EUROPEAN UNION AGENCY FOR FUNDAMENTAL RIGHTS, "Encouraging hate crime reporting – The role of law enforcement and other authorities", FRA, Viena, 2021. Online sarbidea: <https://fra.europa.eu/en/publication/2021/hate-crime-reporting>. Zifra beltz handi hori, hainbat txostenetan adierazi den bezala, hainbat arrazoiengatik izan daiteke: biktinek mesfidantzagatik eta salatze beldurragatik, hala nola organo publikoek gorroto delituei buruzko prestakuntzarik ez izateagatik, horiek arduratzen baitira delituak biltzeaz eta sailkatzeaz. Aurrekoari gehitu behar zaizkio poliziaren aurrean salatzen ez diren gertakariak, baina bai beste instantzia batzuen aurrean, hala nola fiskaltzaren edo guardiako epaitegien aurrean. Horregatik, kontuan hartu behar dira zifra beltza pixkanaka argitzea aukera ematen duten beste tresna batzuk, hala nola biktimizazio-inkestak edo GKEek egindako txostenak, hala nola Eraberearen txostena (ikus txosten honen 3. atalaren infra), iturri desberdinetako datuak ematen dituztenak eta polizia-estatistiken osagarri direnak. ACHUTEGUI OTALAURRUCHI, P., "Victimización de los delitos de odio. Aproximación a sus consecuencias y a las res-

puestas institucional y social", Revista de Victimología/Journal of Victimology, 5, 2017, 36. or. eta hurrengoak. Ikus, halaber, LANDA GOROSTIZA, J.M., "El mapa de odio.... op. cit., 6. or. eta hurrengoak.

LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena, "Delitos de odio en España: estado de la cuestión", Indret Penal 4/2024, 133-182. or. LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena/GIMÉNEZ-SALINAS FRAMIS, Andrea, "Gorroto delituen erabaki judizialak Espainian: 2018tik 2022ra bitarteko kasuen azterketa", Indret, 2025, 297-330. or.

7. Ezin da alde batera utzi polizia-estatistikek Espainiako kriminalitatearen eza-gutza-iturri gisa duten balio mugatua. Izan ere, azken txostenetan aipatu zen bezala, badirudi gertakarien eta gorroto delituen bilketari dagokionez gaiaren egoeraren eskasia zifra beltz handi baten adierazle dela. Horrenbestez, kausa anitzeko azalpenak bilatu behar dira gorroto gertakarien erregistroko gorabeherei buruz, hala nola jomuga-taldeen Segurtasun Indar eta Kidegoekiko duten konfiantza handitzea edo kolektibo horien salaketak jasotzen dituzten Segurtasun Indar eta Kidegoetako agenteen prestakuntza hobetzea, besteak beste. LANDA GOROSTIZA, J.M., "El mapa de odio en el País Vasco. A la vez una reflexión sobre delitos de odio y violencia política en Euskadi, Catalunya e Irlanda del Norte", Indret: Revista para el Análisis del Derecho, 4ena, 2018, 17. or. Polizia-estatistikek kriminalitatearen benetako irismena ezagutzeko iturri bakar gisa duten balio mugatuari buruz, ikus GARCÍA ESPAÑA, E./DÍEZ RIPO-LLÉS, J.M./PÉREZ JIMÉNEZ, F./BENITEZ JIMÉNEZ, M.J./CEREZO DOMÍNGUEZ, A.I./ (2010), "Evolución de la delincuencia en España: Análisis longitudinal con encuestas de victimización", Revista Española de Investigación Criminológica, 8ena, passim.



1.1.

Gorroto delituen banaketa

Epigrafe honetan gorroto delituak aztertuko dira hainbat ataletan. Lehenengo atalean, erregistratutako gertakariak sailkatuko dira, kolektibo babestuaren arabera. Jarraian, delitu-tipologia gertakarien esposizioan kokatzeko faktore gisa jardungo du, gertakariak Zigor Kodearen arabera duten antolamenduaren arabera. Ondoren, parametro espazialen arabera banatuko ditu gertakariak, bai lurralde historikoetan eta udalerriz zehatzetan, bai gertaerak izan ziren kokapen zehatzetan. Azkenik, gertaeren denbora-banaketa gorroto delituekin lotutako gertakarien banaketaren azterketa osatuko du, eguneko denbora-tarteak ulertzeko modu desberdinei arreta eskainiz. Batzuetan arreta berezia merezi izaten dute, eta analisiak zerikusia duten faktoreen inguruabar eta erlazio batzuetan sakonduko du, gertakari edo testuinguru bereziengatik aparteko interesa duten gertakarietan ere arreta jarritz.

1.1.1.

GORROTO DELITUEN SAILKAPENA, KOLEKTIBO BABESTUAREN ARABERA

Kopuru absolutuetan, erregistratutako gorroto gertakariak behera egin dute kategoria guztietan, arrazismo-xenofobia barne, zeinak gorroto maparen ia bi heren hartzen jarraitzen duen (%62). Modu berean, kolektibo babestuen araberrako datuetan murgildu baino lehenago, komeni da gogoraraztea gertakari bera talde zaurgarri batekoa baino gehiagokoa izatea aintzat hartzen dela, diskriminazio anizkoitza edo intersektionalitate⁸ hartzen dena. Beste era batera esanda, kontuan hartu da gertakari bati aurreiritzizko motibazio batek baino gehiagok eragin diezaioketela.

Beraz, gehienetan gorroto gertakaria babestutako ezaugarri bakar batek eragingo duela egia bada ere, hori ez da beti horrela izaten. Izan ere, batzuetan biktimei zaila egiten zaie erasoaren "eragilea" zein ezaugarri izan den aukeratzea, eta, baimentzen zaienean, bat baino gehiago aipatzen dituzte. Hala, ezin da automatikoki onartu erasotzaileek biktimei erasotzen dietela babestutako kolektibo bakar bateko kide izateagatik⁹. Gorrotoagatik biktimizazio-esperientziaren errealitatea ezagutzeko, beraz, kontuan izan behar da gorroto delitua erasotzailearengan hainbat identitate-ezaugarriren aurkako aurreiritziak

8. MASON, G./MAHER, J./MCCULLOCH, J./PICKERING, S./WICKERS, R./MCKAY, C., Policing hate crime. Understanding communities and prejudice, Routledge, Oxon, 2017, 120 or.; PERRY, B./SCRIVENS, R. "The Maturation of Hate Crime Scholarship", en BEAN, P., Hate Crime: Critical Concepts in Criminology, Routledge, Oxon, 2017, passim-ean.

9. CHAKRABORTI, N., "Framing the boundaries of hate crime", en HALL, N./CORB, A./GIANNASI, P./GRIEVE, J., The Routledge International Handbook on Hate Crime, Routledge, Oxon, 2015, pp. 13-23; LEVIN, J./MCDEVITT, J., Hate Crimes. The Rising Tide of Bigotry and Bloodshed, Plenum Press: Nueva York, 1993, passim; PERRY, B./SCRIVENS, R. "The Maturation of Hate....", op. cit., passim.





elkartzetik etor daitekeela¹⁰.

Txosten honetan, 19 kasutan erregistratu da mota horretako gorrotoagatiko biktimizazioa. 236 kasu erregistratu direnez, erreferentzia gisa hartzen den 255 gertakariko zifra arrazoi anizkoitza sartzearen emaitza da. Zehazki, honako kolektibo babestu hauen arteko elkargunea aurkitu da: arrazismoa eta sexu-orientazioa (n=7), arrazakeria eta generoa (n=3), sexu-orientazioa eta generoa (n=3), arrazismoa eta aporofobia (n=2), sinesmen edo praktika erlijiosoak eta arrazakeria (n=2), sinesmen edo praktika erlijiosoak eta sexu-orientazioa (n=1), eta antisemitismoa eta sinesmen edo praktika erlijiosoak (n=1). Beraz, diskriminazio anizkoitzeko kasu gehienak (n=7) arraza-xenofobo motako gertakarietan gertatzen dira, eta motibazio homofobia edo transfobia ere badute. Arrazakeriaren edo xenofobiaren ondoriozko diskriminazio-kasuen prebalentzia orokorrekin bat etorritik, diskriminazio anizkoitzaren kasuek ere (n=14; %70) motibazio hori dute.

2. Irudia MOTIBAZIO ANIZKOITZA (2024, n=19)

	ARRAZISMO / XENOFOBIA	SEXU-ORIENTAZIOA / IDENTITATEA	GENEROA	SINISMEN EDO PRAKTIKA ERLIJIOSOAK	APOROFOBIA	ANTISEMITISMOA
ARRAZISMOA / XENOFOBIA		7	3	2		
SEXU-ORIENTAZIOA / IDENTITATEA				1		
GENEROA		3				
SINISMEN EDO PRAKTIKA ERLIJIOSOAK						1
APOROFOBIA	2					
ANTISEMITISMOA						

Gorrito delituak erasotutako kolektibo babestuaren arabera sailkatzeari dagokionez, izaera arrazista edo xenofobia duten delituek, aurreko urteen ildotik, erregistratutako delitu gehienak biltzen jarraitzen dute (n=146; %62), intzidentzia erlatiboa aurreko urtekoa baino pixka bat txikiagoa da, eta erregistratutako gertakarien ia bi herenera iristen da.


Arrazakeriarekin edo xenofobiarekin lotutako pertsonen atzetik, sexu-orientazioak eta identitateak eragindako delituak daude (n=54; %23), eta bigarren kolektibo biktimizatuagoa izaten jarraitzen dute, aurreko urtean baino kasu gehiago erregistratuz (n=22; %16); gainera, aurreko urteetako pisu erlatiboa berreskuratu dute (2020an n=50, %20).

Hirugarrenik, ideologia dugu (n=16; %6), honen ehunekoa jaitsi da 2022tik, maila ertainetan, serie historiko osoarekin alderatuz gero, nahiz eta haren posizio erlatiboa beste urte batzuetatik urrun egon (2018an n=17, %13; 2019an n=18, %17).

10. CHAKRABORTI, N./GARLAND, J. "Reconceptualising hate crime victimisation through the lens of vulnerability and 'difference'", *Theoretical Criminology*, 16. Bol., 4ena. 2012, 499-514 or.

11. Gertakari bakoitzerako motibazio nagusizat hartu da dagokion polizia-ates-tuan aipatutako lehenengoa.

3. Irudia DELITUAK TALDE BABESTUAREN ARABERA (2016-2024)



Biktimaren sexuan edo generoan oinarritutako gorroto delituek, aurreko urtean bezala, behera egin dute berriro¹², 2023an erregistratutako gertakarien %6tik %4ra (n=9; %4). Horrela, generoak galdu egiten du 2022an lortu zuen hirugarren postu nabarmena, eta erregistro-maila neurrizkoagora itzultzen da, ideologiaren atzetik, laugarren postuan kokatuz.

12. Aldagai hori duela lau urte jasotzen hasi zenetik, kolektibo horren aurkako gorroto delituen gorakada handiena izan zen; izan ere, ordura arte (2022) ez zen ia aldaketarik izan delitu horien kopuruan.




Bestalde, modu marjinalagoan (gutxizkoaren %5), sinesmen edo praktika erlijiosoekin (n=6), aniztasun funtzionalarekin (n=2), antisemitismoarekin (n=2) eta beste kategoria batzuekin (n=1) lotutako gertakariak erregistratu dira. Aporofobia eta adinaren kategoriek ez dute gertakaririk erregistratu. Nabarmen-tzekoa da biktimaren aniztasun funtzionalean oinarritutako gertakari bi baino ez direla erregistratu, 2023an zenbatutako 6 kasuak baino kopuru txikiagoa. Bestalde, aurtan 6 gertakari erregistratu dira aurreko urtean gertakaririk izan ez zuen sinesmen edo praktika erlijiosoei dagokionez.


Hemen, txosten hau kokatzen den testuinguru zabalenari erreparatu behar zaio. Indarkeria matxista gorroto delituen modu larrienetako bat da, eta eragin sakona du biktimengan eta haien ingurunean. Gertakari horrek gizartean duen larritasuna eta inpaktua kontuan hartuta, eta kasu horiek ikusarazteko eta salatzeko egindako aurrerapenak gorabehera, badirudi oraindik ere detektatzea eta erregistratzea zailtzen duten oztoporik badagoela. Jatorrian, eremu subjektiboan, detekzioarako hainbat oztopo egon daitezke, hala nola errepresalien beldurra, erakundeekiko konfiantzarik eza (bereziki ahultasun bereziko egoeretan dauden emakumeen kasuan, migratuak edo ekonomikoki menpekoak kasu), indarkeriaren normalizazioa (bereziki egiturazkoa eta sinbolikoa) eta estigmatizazio soziala. Bestetik, eremu objektiboan, eta mota honetako gertakariei garrantzirik kendu gabe, genero-arrazoiengatiko biktimizazioa gertakari bereizitzat hartzeak gorroto delituen maparen irudiaren distorsionatzaile gisa joka dezake.

Euskal Autonomia Erkidegoko gorroto gertakarien gutxiespen orokor hori, funtzionala ez izateaz gain, ez da lerrokatzen emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren 11. artikuluekin. Bertan, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria mota guztiei buruzko datu bereziak biltzea eskatzen zaie erakundeei. Eskakizun hori ikuspegi integral batetik ulertuta, hau da, gorroto delituei buruzko esparru zabalean, indarkeria matxistarekin lotutako delituen infradetekzioak (jatorrian edo datu-prozesuan) infraestimazioa eragiten du, eta horrek arazoaren gutxiespenean oinarritutako ondorioetara eraman dezake, mota horretako delituen benetako pisua ez islatzeagatik.


4.1. Irudia DELITUAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2024).

EUSKADI (N=236)







4.2 Irudia ARABA (n=19)



4.3 Irudia BIZKAIA (n=120)




4.4 Irudia GIPUZKOA (n=97)




Arrazakeria eta xenofobia gertakariei buruzko datuak aztertuz gero, horien kopuru absolutuak behera egin duela ikus daiteke, zehazki, %20koa izan da jaitsiera (2023an n= 180; 2024an n=147), hala eta guztiz ere, pisu erlatiboari eusten dio ia (2023an %64; 2024an %62). Kolektiboen banaketa ez da aurreko urteetakoaren berdina, baina ijito-komunitatea berriro agertzen da banaketan: arabiarra (n=57; %39), latinoamerikarra (n=46; %32), beltza (n=20; %14), nazionalitatea/jatorria (n=11, %7), arraza/etnia (n=4; %3), ijitoa (n=3; %2) eta asiarrak (n=3, %2). Nabarmentzekoa da arabiarren eta latinoamerikarren kopuruak gora egin duela (ehuneko 11 puntu lehen kasuan eta 4 puntu bigarreanean), gainerakoek gora edo behera egiten dute.




5.1 Irudia DELITOS DE RACISMO - XENOFOBIA POR COLECTIVO (2024, n=144). EUSKADI (N=144)




5.2 Irudia ARABA (n=12)




5.3 Irudia BIZKAIA (n=72)



5.4 Irudia GIPUZKOA (n=60)






1.1.2.
GORROTO DELITUEN SAILKAPENA,
DELITU TIPOLOGIAREN ARABERA

Delitu tipologia nagusienei dagokienez, hurrengo grafikoak adierazten du lesioak direla nagusi (n=90, %38), ondoren mehatxuak (n=48, %20), gorroto diskurtsoa (n=30, %12), derrigortzeak (n=22, %9) eta tratu apalesgarria (n=19, %8)¹³. Deigarria da erregistratutako giza hilketa saiakera kasu bat (burutu gabekoa), hauteskunde-legeriaren aurkako arau-hauste bat eta agintaritzari men ez egiteagatik delitu bat.

6. Irudia DELITU TIPOLOGIAK (2024, N=236)



Hurrengo taulak delitu-kategoriak nola taldekatzen diren erakusten du:

SEXU-ERASOA ¹⁴	ZK-ko 179 eta 181 art.	GIZA HILKETA	ZK-ko 138 art.
MEHATXUAK	Zk-ko 169, 170 eta 171 art.	EBASKETA	ZK-ko 234 art.
DERRIGORTZEA	ZK-ko 172 art.	HAUTESKUNDE-LEGERIAREN AURKAKO ARAU-HAUSTEA	LOREG-eko 139-150 art.
KALTEAK	ZK-ko 263 art.	IRAINAK	ZK-ko 209 art.
SEKRETUAK EZAGUTARAZI / AGERRARAZTEA	ZK-ko 197 art.	LESIOAK	ZK-ko 147 art.
GORROTO DISKURTSOA	ZK-ko 510 art.	LAPURRETA	ZK-ko 242 art.
AGINTARITZARI EZ OBEDITZEA	ZK-ko 410 art.	TRATU APALESGARRIA	ZK-ko 173 art.

13. Hala ere, kontuz hartu behar dira lesioak bezalako delitu larriagoen prebalentzia; izan ere, ikerketa batzuen arabera, hain larriak ez diren gorroto delituen biktima askok uste dute poliziak "ezingo duela askorik egin" horrelako delituetan, eta, ondorioz, ez dituzte salatzen. MASON, G./MAHER, J./MCCULLOCH, J./PICKERING, S./WICKERS, R./MCKAY, C., Policing hate crime,.... op. cit., 89. or.

14. Jakina denez, sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak ezabatu egin du sexu-erasoaren eta sexu-abusuaren arteko bereizketa, eta sexu-erasotzat hartu ditu sexu-askatasunaren aurka egiten duten jokabide guztiak, beste pertsonaren baimenik gabe. Horrela, Espainiak bere gain hartutako betebeharrak bete ditu 2014an Istanbulgo Hitzarmena berretsi zuenetik.



Nabarmentzekoa da aurreko urtearekin alderatuta kategoria guztiek termino absolutuetan izan duten beherakada, 2020koaren antzeko mailetara iritsiz, nahiz eta 2019an hasitako gorakadak ezarritako mailetatik ez jaitsi, batez ere lesioen eta mehatxuen kasuetan. Bestalde, gorroto diskurtsoak behera egin du, zehazki 16 gertakari gutxiago 2023arekin alderatuta; eta 2016tik erregistratutako batez bestekoaren gainetik mantendu da ($\bar{x}=26$) 30 kasurekin, rankingean hirugarren postua hartuz.


Gainerako delituek 2016tik gaur arte izan duten bilakaerari dagokionez¹⁵, delitu motarik ohikoena lesioena izaten jarraitzen du. Historian aldaketa handiak izan dituen delitu-kategoria izanik, jaitsiera 2022an izandako kasuen erdira jaitsi da ($n=180$, delituen % 41), eta 2024an 90 kasutan kokatu da (%38), 2021ekoa ($n=98$, %39) baino maila txikiagoa ere bada. Ikus daitekenez, termino absolutuetan izandako beherakadak ez da delitu guztiekiko pisu erlatiboan islatu. Murrizketa hain handia izanda, pentsa daiteke prebentzioko hobekuntzengatik edo erasotzaileen portaeraren aldaketagatik izan zitekeela.

Mehatxu delituek bigarren tokian jarraitzen dute ($n=48$, %20), eta termino erlatiboetan nabarmen egin dute behera aurreko urtearekin alderatuta (-%37), 2016 urtetiko batez bestekoaren azpitik ($\bar{x}=47$). Derri-gortze-delituen kopuru absolutua ia erdibitu egiten da 2023koarekin ($n=41$, %14) konparatuta, guztira 22 delitu (%9), azken sei urteetako batez bestekoaren zertxobait azpitik geratuz ($\bar{x}=24$). Tratu apalesgarriaren delituek ($n=19$, %8) 2021az geroztiko mailan jarraitzen dute. Azkenik, termino absolutuetan gora egin duen kategoria bakarra, kalteen delituak, 8 kasura igo dira 2024an.

¹⁵. Grafikoan, urteetan zehar jarraitutasuna izan duten delitu-tipologiak bakarrik islatu dira, hau da, aztertutako urte guztietan agertu diren tipologiak, urte bakar batean edo batzuetan agertzen zirenak alde batera utzita.



7. Irudia DELITU-TIPOLOGIAK (2016-2024)



Jarraian, kolektiboekin lotuta dauden delitu-tipologia nagusiak jasotzen dira – lesioak, mehatxuak, gorroto diskurtsoa, derrigortzeak eta tratu apalesgarria –, zenbait kolektibok delitu-mota jakin batzuk jasateko joera handiagoa duten jakiteko. Horrela, datuek erakusten dutenez, erregistratutako lesio-delitu guztien bi heren baino gehiago (%66) arrazakeria edo xenofobiagatik gertatzen dira, eta sexu-orientazio eta identitateagatik, berriz, lesio-delitua %23koa da. Kontuan hartuta biktimizazioek antzeko proportzioak ematen dituztela¹⁶, esan daiteke lesio-delitua laginaren adierazgarria dela 2024an, neurri batean.


¹⁶. Gogora dezagun delituen % 62ren motibazioa arrazakeria edo xenofobia dela, eta % 22rena, berriz, sexu-orientazioa edo identitatea.







Mehatxu-delituaren antzeko simetria ikus daiteke, motibazio arrazistak delitu horren proportzio handiagoa (%73) pilatzen duen arren, eta sexu-orientazioa proportzioan txikiagoa den bitartean (%17). Egoera hori aldatu egiten da bi kolektibo horiek (arrazakeria eta xenofobia (n=13, %43) eta sexu orientazioa eta identitatea (n=12, %40) ia berdinduta geratzen diren kasuetan. Arrazakeriaren eta xenofobiaren muturreko metaketa 22 erregistrotatik betetzen da oraindik ere, are nabarmenago, derrigortzeen kasuan; 15 erregistro (%68) kolektibo horrentzat dira; gainerakoak, aldiz, modu erregularrean banatzen dira sexu-orientazioaren, orientazio politiko edo ideologikoaren eta generoaren artean (2 erregistro kategoria bakoitzean).

8. Irudia DELITU TIPOLOGIAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOEN ARABERA (2024, N=236)



1.1.3. GORROTO DELITUEN BANAKETA ESPAZIALA

Lurralde historikoetako 236 delituen banaketari dagokionez, hurrengo grafikoak erakusten du Bizkaian biltzen direla gorroto delituen erdia (n=120, %50), Gipuzkoan, berriz, hamar delitutik lau (n=97, %41), eta Araban, berriz, hamarrenera ez da iristen (n=19, %8). Beraz, lurralde historikoen araberako banaketa antzekoa da: egoera txikia izan da Bizkaian eta Gipuzkoan, eta jaitziera nabarmena Araban

**9. Irudia DELITUAK LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2024, N=236)****10. Irudia DELITUAK LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2018-2024)**


Honi dagokionez, Arabako gertakarien beherakada orokorra deigarria da. Aurreko grafikoan eta hurrengoan ikus daiteken bezala, Bizkaiak serie historikoarekin kohesio-ildoari eusten dion bitartean, Arabak ehuneko 10 puntuko jaitsiera izan du pandemiaren hasierako aldiko mugarritik (2020, n=44, %18) 2024ko gutxieneko punturaino (n=19, %8), 2018ko mailan kokatuz (n=10, %8), nahiz eta 2024an kopuru absolutuetan orduko kasuen bikoitza egon (n=19, %8). Arabako serie historikoaren joera-lerroak erakusten duenez, badirudi jaitsiera denborak aurrera egin ahala ezarri dela, 2022ko mugarrira gorabehera eta horren aurka, urte horretan gertaeren kopuruak goia jo baitzuen (N=435). Banaketa normal¹⁷ baten antzeko forma hartzeak, beharbada, faktore ugarien arteko elkarrekintzaren eredu bat adierazten dezake, horrek azterketa honen irismena gaintzen duen azterketa eremu sakonago baten beharra iradokitzen du. 2018az geroztik seriearen batez bestekoaren ($\bar{x}=33$) erreferentzia hartuta planteatu litezke joera horren arrazoiak aztertzea. Kontuan hartu beharreko aldagaietatik, honako hauek har litezke kontuan: tokiko politiken eraginkortasuna, sistema judizialarena, polizia-indarrek gertakariei aurre egiteko eraginkortasuna, faktore ekonomikoak, historikoak, kulturalak eta mediatikoak.

¹⁷ Banaketa normal edo gaussiar bat (Gausse kanpaitik eratorria) aldagai baten balioak bere batez bestekoaren inguruan modu simetrikoan banatzen dituen da, batez bestekotik hurbil kontzentratuz eta muturretan murriztuz. Horrek esan nahi du muturreko balioak arraroenak izanik, inplikaturako faktoreen aldakortasunak aurreikusteko moduko portaera estatistikoa eta orekatua adieraz dezakeela.






11. Irudia GORROTO DELITUAK, ARABA (2018-2024)



Gipuzkoan kontrako joera ikusten da, gertakarien gorakadak joera argia iradokitzen baitu, joera erabat lineala marrazten ez duen arren. Pandemiaren aurretik (2018, n=33, %25) eta pandemiaren irismen batean (2020, n=64, %27), nolabaiteko antzekotasuna ikus zitekeen, baina ondorengo urteetan gorakada jazo da, 2024an amaitu dena (n=97, %41). Arabaren kasuan planteatutakoaren pareko azterketa planteatu liteke, nahiz eta Gipuzkoaren kasuan jazoera objektiboak kontrako joera markatzen duen, 2018tik serieak izan duen batez bestekoa baino handiagoa, hain zuzen. Hainbat faktorek, hala nola komunikabideen inaktuak, sare sozial digitalek, politika lokalen, polizialen, judizialen, ekonomikoen eta juridikoen eraginkortasunak, eta baita hauen arteko elkarrekintzek ere, ikerketa kuantitatibo eta kualitatibo sakon eta konplexuagoa suposatuko lukete. Gaia bi muturreko batean planteatu daiteke: alde batetik, aldagai sozial objektiboen sare konplexu horren elkarrekintza; bestetik, gorroto delituak detektatzeko mekanismoen eraginkortasuna eta horiek lurralde bakoitzean duten aplikazioaren diferentziala.

12. Irudia GORROTO DELITUAK, GIPUZKOA (2018-2024)






Jarraian, gorroto delituen banaketa aurkezten da Euskal Autonomia Erkidegoan¹⁸. Araban, gorroto delituen erregistroak behera egin zuen 2024an, zazpi urtean lehen aldiz, eta, horri jarraikiz, Gasteiz ez da udalerrien sailkapeneko lehen lekuen artean ageri, Irunek ordezkatu du postu horretan. Horrela, Bilbo (n=47, %20), Donostia (n=35, 15%) eta Irun (n=20, %8) nabarmentzen dira.

Kasuen gorakada neurrigabea ez bada ere, Arabako gorroto delituen jaitsierak eragin erlatibo handia izan du. Horrela, Bilbok jaso du igoerarik nabarmenena, 41 kasu erregistratuz (%15) 2023an, urte horretan jaitsiera nabarmena izan baitzen aurrekoaren aldean (2022an n=83, %19). Donostian bi kasu gutxiago izan dira 2023tik (n=37, %13). Irun, berriz, hirugarren tokian geratu da (n=20, %8), Gasteizen aurretik (n=14, %6), kasuen arteko aldea txiki batengatik; Irunen, 2023an, 17 kasu izan ziren (%6), eta Gasteizen, 25ean (%9). Azken hori izan da aldaketarik nabarmenena.

Bizkaian Barakaldo (n=9, %4) eta Santurtzi (n=8, %3) nabarmentzen dira, eta Gipuzkoan Erretera (n=7, 3%) eta Hernani (n=6, %2). Udalerrri horien prebalentzia ez da harritzekoa, Barakaldo Bizkaiko bigarren udalerrri populatuena baita, Irun Gipuzkoakoa den bezalaxe. Azken kasu horretan, gainera, Irun joan-etorri handiko espazioa da, Frantziako Estatuarekin mugan baitago. Aurreko hori bat dator delitu horiek pertsonen bolumen, dentsitate edo mugimendu handia, edo trafiko handia dagoen lekuetan egiten direla adierazi duten ikerketekin¹⁹.

13. Irudia DELITUAK UDALERRIAREN ARABERA (2024, N=236)



¹⁸. Grafiko honetan, EAEn gertatu diren delituak soilik islatzea erabaki da, eta kanpoan utzi dira, han erregistratu arren, lurralde horretan bakarrik salatu direnak, eta ez dira benetan Euskadin izan.

¹⁹. IGANSKI, P., Hate crime and the city, Policy Press, Bristol, 2008, passim.




Arrazakeria/xenofobia delituei soilik erreparatzen badiegu, ikus daiteke, zortzigarren urtez jarraian, Bizkaia jarraitzen duela kontzentratzen kasu gehienak, 147 kasuetatik 73 erregistratu bait ditu (%50), aurreko urtean (%47) baino zertxobait gehiago. Gipuzkoan erregistratutako kasuen ehunekoak behera egin du, 61 kasurekin (%41), 2023ko 74 kasuekin alderatuta (%42). Araban, berriz, 13 kasu erregistratu dira (%9), aurreko urtean baino kopuru txikiagoa.

Biktimaren sexu-orientazioan eta identitatean oinarritutako delituei dagokienez (n=54), gehienak (30) Bizkaian erregistratu ziren (%55), 5 Araban (%9) eta 19 Gipuzkoan (%35). Biktimaren sexu edo generoa dela-eta egindako gorroto delituetatik 8 Gipuzkoan gertatu ziren, eta horri Bizkaiko kasu bakarra gehitu behar zaio, 2022an lurraldean erregistratutako mota horretako 47 delituetatik oso urrun.

Ideologia edo joera politikoagatiko 16 delitu erregistratu ditu Ertzaintzak: 9 Bizkaian, 6 Gipuzkoan eta bakararra Araban. Biktimaren aniztasun funtzionalagatiko 6 gertakariei dagokienez, aurreko guztiak Bizkaian kontzentratzen dira.

14. DELITUAK LURRALDE HISTORIKOAREN ETA KOLEKTIBOAREN ARABERA (2024, N=236)



Hurrengo grafikoak gorroto delituen banaketa espazioaren ikuspegitik ere aztertzen du, baina, kasu honetan, delitu horiek egin diren lekuan jartzen da arreta. Ikus daitekenez, bide publikoek egite-lekuen herena baino gehiago biltzen dute, zehazki, kasuen %38a.

Nolanahi ere, "bide publiko" gisa sailkatutako agertokiaren kokapen zehatzaren inguruan galdetzea dago. Izan ere, nahiz eta, stricto sensu, komisiio-leku batzuk polizia-espazio publiko gisa etiketatu daitezkeen (hala nola kaleak, bidezidorrak, parkeak, etab.), hainbat ikerketek erakutsi dute askotan bi-



ktimaren etxetik oso hurbil daudela²⁰. Gorroto delituen ehuneko handi bat biktimaren etxebizitzan edo inguruetan gertatzea, erabakigarria da, gainera; izan ere, kasu horietan, erasotik eratorritako inpaktu psikologikoa handiagoa izan daiteke²¹, eta biktimaren familiari ere eragin diezaioke²². Hori dela eta, ahal den neurrian eta informazioaren irisgarritasunean oinarrituta, egite-lekuaren kategorien banaketak faktore hori hartu du kontuan, "bizitegi-eremu komuna/inguruak" serie bat gehituz, eta, horrela, bide publikoa izan gabe eta etxebizitza partikularren barrualdea izan gabe, bizilekuaren inguruan kokatuta dauden espazioak jaso dira.

Faktore horrek egite-lekuen banaketan nolabaiteko eragina badu ere, bide publikoan egin dira gorroto delitu gehien 2024an ere (n=91, %38), aurreko urtean baino zertxobait gehiago (n=108, %34).

Bigarrenik, ostalaritza-establezimenduak daude, kafetegiak, tabernak, pubak eta diskotekak barne. Kasu honetan, aurreko urteekin alderatuta, ostalaritza-establezimenduak, aisialdirako leku gisa, merkataritza-establezimenduetatik bereizita (produktuak eta zerbitzuak saltzeko lokalak eta merkataritza-zentroak) bereiztearen ondorioz, irudikapen zehatzagoa lortu da. Horrela, ostalaritza-establezimenduak gorroto delitu gehien egin diren bigarren tokian daude (n=45, 19%). Hirugarren postuan, hain zuzen ere, bizitegi-eremu komunak eta horien inguruak daude (n=19, %8), eta ondoren, orain bai, bizilekua dago (biktima bera bakarrik edo beste pertsona batzuekin partekatuta) laugarren tokian (n=18, %8). Merkataritza-establezimenduak bosgarren dira (n=14, 6).

Etxetan eta horien inguruetan gertatutako delituen baturak (n=37) % 15eko emaitza ematen du, horrek esan nahi du biktimek beren eguneroko bizitzan gehien erabiltzen dituzten tokiek gorroto delituaren agertoki izateko probabilitate handiagoa dutela²³. Kategoría horiei merkataritza-establezimenduei eta ostalaritza-establezimenduei dagokiena gehitzen bazaie (n=96)²⁴, ehuneko % 40ra igotzen da.

Laburbilduz, kokapenen kategoriak aldatzeak hainbat ñabardura dituen plano bat sortu du. Alde batetik, bizitegi-eremuak etxetik gertu egotearen arabera bereizteak ez du aldaketa handirik eragin bi kategorien prebalentzian (etxea bera, %8; haren ingurua, %8), baina zehaztasun handiagoz interpreta daiteke. Bi kasuetan eragina handia bada ere, garrantzitsua da adieraztea ia gertakari kopuru bera dagoela kasu batean eta bestean. Horrek pentsarazi diezaguke, adibidez, ez dela ezinbesteko baldintza egilearen eta biktimaren arteko hurbiltasun-maila nahikoa estua izatea biak batera bizitzeko, edo bizilekua bortxatzea delitu bideratzailea izatea; aitzitik, biktimizazioa espazio publiko batean zirkulatzeak askatasunetik egikaritu daiteke. Gai hori faktore garrantzitsua izan daiteke jazarpen-joerak jardueramota jakin bat adierazten duten delituetan jardutekoan.

Bestalde, ostalaritzako eta merkataritzako lokalen arteko bereizketak ikuspegi bereziagoa eskaintzen du espazioaren ezaugarritzearen arabera. Ostalaritza establezimenduetako gertakariak bigarren postuan daude, eta merkataritzakoak, berriaz, urrun samar, eta horrek hainbat uste sor ditzake.

20. Ikus, zentzu honetan, MASON, G., "Being hated: Stranger or familiar?", *Social & Legal Studies*, 14. Bol. 4ena, 2005, 593-594 or.; MCDEVITT, J./BALBONI, J./GARCIA, L./GU, J., "Consequences for victims: A comparison of bias- and non-bias-motivated assaults", *American Behavioral Scientist*, 4. Bol. 4 ena, 2001, passim.

21. SCHEPPELE, K. L./ BART, P. B., "Through women's eyes: Defining danger in the wake of sexual assault", *Journal of Social Issues*, 39. Bol. 2ena, 1983, passim.

22. CHAKRABORTI, N./GARLAND, J./HARDY, S. J., *The Leicester hate crime project: Findings and conclusions*, University of Leicester, Leicester, 2014, passim.

23. MCNEELEY, S./OVERSTREET, S. M., "Lifestyle-routine activities, neighbourhood context, and ethnic hate crime victimization", *Violence and Victims*, 33. Bol., 2018, 16 or. eta hurrengoak.


24. Baieztapen hori zuhurtasunez hartu behar da, kategoría honetan noizean behin erabiltzen diren kokapenak sartzen baitira, hala nola diskotekak.





Aisialdikotzat hartzen diren tokiek gorroto delituak sarriago sorraraztea horien funtzionaltasunarekin lotuta egon daiteke. Merkataritza-lokaletan ematen diren harremanak gehienbat erabilgarritasunean oinarrituta egon eta zuzenekoak badira, produktu edo zerbitzu bat lortzera bideratuak; ostalaritza-lokal batean izaten diren elkarrekintzek arreta beste faktore batzuetara gehiago bideratzea eragin dezakete, hala nola fenotipoaren hautematera, xehetasunetara, ohituretara edo bertaratutako pertsonen jardunbideetara. Modu berean, espazio bakoitzan emandako batez besteko denbora asko alda daiteke, baita kasu bakoitzean baimendutako edukiera (batzuetan funtzionala ere izan daitekeena) edo jende kopurua ere. Elikagaiak, zerbitzuak, tresnak eta bestelakoak egunerokotasunean erosteak ez du esan nahi denbora edo pertsona asko behar denik; aldiz, aisialdirako tokietan, hala nola tabernetan, kafetegietan edo diskoteketan, egonaldi luzeagoak ohikoagoak dira, baita aniztasunarekiko esposizio handiagoa ere, eta handiagoa beraz, estereotipazio-prozesuen probabilitatea.

15. Irudia DELITUAK LEKUAREN ARABERA (2024, N=236)




Jarraian, egite-lekuei buruzko datuak aurkezten dira, biktimizatutako kolektiboaren arabera. Horretarako, lehentasunezko lekua eman zaie egite-leku ohikoenei. Leku guztietan gorroto arrazista edo xenofoboaren delituak nagusitzen direla nabarmentzen da. Bide publikoan, delituen erdia baino gehiago (n=50, %55) mota horretakoak dira, ondoren, sexu-orientazio edo identitateagatikoak (n= 26, %29). Orientazio politikoa edo ideologikoa ere bada delitu motibazioa bide publikoan, baina proportzio txikiagoan (n=9, %10). Banaketa hori ostalaritza-establezimenduetan errepikatzen da, nahiz eta joera nabarmenagoa izan; mota horretako tokietan, delituen bi heren arrazistak dira (n=30, %66); bestalde, ostalaritza-lokaletan biktimizatutako lau pertsonatik bat sexu orientazioagatik edo identitateagatikoa da (n=11, %24).



Bizitoki-eremuetan eta inguruetan, arrazakeriarekin eta xenofobiarekin lotutako gorroto delituak dira nagusi, neurri handi batean (n=17, %89). Proportzio horretan gertatzen ez bada ere, delitu arrazistak eta xenofoboak nagusi dira gainerako lekuetan, etxean erdia baino gehiago dira (n=10, %55) sexu orientazio eta identitateak motibatutako delituen aurrean (n=6, %33); merkataritza-establezimenduetan delitu xenofoboak lautik ia hiru dira (n=10, %71); ikastetxeetan hirutik bat (n=7, %63); garraio publikoan ere gehiengoa dira (n=7, %78). Azken ohar gisa, ziberespazioan eta telefonian, kasu kopuru txikiagoarekin (n=9), arrazakeriak edo xenofobiak eragindako delituak eta sexu identitate edo orientazioak motibatutakoak ia berdinduta daude, 5 kasurekin lehenengoan eta 4 kasurekin bigarrenean.

16. Irudia DELITUAK LEKUAK ETA BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2024, N=236)






Aipatzekoa da ziberespazioan kokatzen den eta sexu orientazio edo identitateak eragindako gorroto delituen parametroen barruan 2024an polemika gehien sortu zuten gertakarietako bat²⁵. UPV/EHUK eta EBOVIgtbi+ Federazioak (Euskal LGTBI+ Behatokia/Observatorio Vasco LGTBI+) Leioako (Bizkaia) UPV/EHUKo campusean Lan Zuzenbidearen ordezk gisa kontratatutako irakasle baten argitalpenek eragindako salaketak jarri zituzten, gorrotoa bultzatzea egotzita. Iruzkina matxista, arrazista eta xenofoboak zituzten argitalpenek ikasle antolatuen mobilizazioa eragin zuten, eta horrek arreta berezia sortu zuen egileak X (lehen Twitter zena) bezalako sareetan publikoki adierazitako iritzien inguruan. Aipatutako salaketez gain, UPV/EHUK egilea kaleratu zuen kode etikoa ez betetzeagatik. Gainera, iritzia argitaratzen zituen sare sozialak bere kontua eten zuen.

Gertakari honek ziberespazioan gertatutako delituek ordezkapenaren inguruko zalantzak sor ditzake. Azaldu den bezala, 2024an 9 dira soilik kategoriatik horretako gertakariak (%4), eta aurreko urteetan, zifra absolutu handiagoak erregistratu arren, proportzionaltasuna maila berdinetan mantentzen da, ondorengo grafikoak erakusten duen bezala. Galde daiteke ea ziberespazioko gorroto delituen hazkundea gizartearen pertzepzioaren eta haien eragin mediatiko puntualaren ondorio den (gertakari horrekin gertatu zen bezala) edo, aitzitik, hautemateko eta monitorizatzeko bitarteko, mekanismoak edo gaitasun faltagatik den.


Zentzuzkoa da, halaber, ingurune horren berezko dinamiken ondorioei eta gertakarien hazkunde esponentzialerako aukerari buruz galdetzea, batzuetan erresonantzia-ganbera gisa jarduten baitu. Hainbat plataformatan presentzia daukan "Lo que no te cuentan de Donostia" taldearen kasuan, gorrotoa bultzatzeko baliatua izan da. Gertakaria ez da Internetera mugatzen; haatik, lortutako garrantzi sozialaren ondorioz, agerpen presentzialak eragin zituen²⁶. Eragina ez da hutsala, ez ziberdelinkuentziari dagokionez, ezta espazio fisikora tokiz aldatzeko duen potentzialtasunari dagokionez ere. Txosten honetan jasotako kasuan, egileek fenotipo arabiarreko pertsonen argazkiak ere zabaldu zituzten, "mairuen" aurkako eraso fisikoa sustatuz. Gainera, taldearen errepikak antzeman dira, besteak beste, Gasteizen²⁷. Zalantza jar daiteke problematika horren benetako dimentsioa txosten honetan jasota geratzen den ala ez.

25. Esparru desberdinetako komunikabideek islatu zuten gertakaria: <https://www.diariovasco.com/sociedad/educacion/fiscalia-ert zaintza-comentarios-machistas-homofobos-profesor-upv-20241014111152-nt.html>, <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/sociedad/2024/09/28/profesor-upv-sale-escoltado-protestas-8742391.html>, <https://www.elsaltodiario.com/antifascismo/upv-despide-profesor-ultraderechista-derecho>, https://www.lasexta.com/noticias/sociedad/universidad-pais-vasco-despide-profesor-que-fue-denunciado-insultos-machistas-homofobos-xenofobos_2024100366feafac077ed10001dee449.html.

26. Honen garrantzia hainbat komunikabideetan islatu zen: <https://www.donostitik.com/200-personas-responden-a-la-concentracion-en-egia-de-lo-que-no-te-cuentan-de-donostia/>, <https://www.naiz.eus/es/info/noticia/20241025/un-perfil-que-vincula-solidaridad-con-inseguridad-quien-esta-tras-la-concentracion-de-egia>, <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/sociedad/2024/11/16/incidentes-concentracion-protestaba-inseguridad-san-sebastian-8941610.html>.
27. 2024. urtearen amaieran, Espainiako Estatuko hainbat hiritarako kanalak sortu ziren, besteak beste, Gasteizerako, eta, kasuren batean, norabide bereko mobilizazio-saioak izan dira: <https://www.elsaltodiario.com/racismo/replacan-irunea-gasteiz-canal-telegram-impulsa-movilizaciones-racistas-donostia>.




17. DELITUAK ZIBERESPAZIOAN EDO TELEFONIAN (2018-2024)






1.1.4. GORROTO DELITUEN DENBORA-BANAKETA


Jarraian, hileroko banaketa aurkezten da, urtaroen, astearen eta ordutegiaren arabera. Gorroto delitu gehien izan diren hilabeteak martxoa (n=24, %11), abuztua (n=25, %11) eta azaroa (n=27, %12) izan dira.

18.1. Irudia DELITUEN HILEROKO BANAKETA (2024)²⁸ EUSKADI (N=228)




28. 2024ko ekitaldian erregistratutako delitu batzuekin lotutako gertakariak 2024tik kanpo gertatu zirenez, laginak ez ditu delitu guztiak islatzen, urte naturalean gertatutakoak baizik.

**18.2. Irudia DELITUEN HILEROKO BANAKETA (2024)****ARABA Araba (n=18)****18.3. Irudia DELITUEN HILEROKO BANAKETA (2024)****BIZKAIA (n=110)****18.4. Irudia DELITUEN HILEROKO BANAKETA (2024)****GIPUZKOA (n=94)**




19.1. Irudia DELITUAK URTAROAREN ARABERA (2024)

EUSKADI (N=228)




19.2. Irudia DELITUAK URTAROAREN ARABERA (2024)

ARABA Araba (n=18)




19.3. Irudia DELITUAK URTAROAREN ARABERA (2024)

BIZKAIA (n=110)



19.4. Irudia DELITUAK URTAROAREN ARABERA (2024)


GIPUZKOA (n=94)






Urtaroaren arabera delitu moten banaketa kontuan hartuta, ikus daiteke mehatxuen delituak urtaro guztietan parametro berean mantentzen direla (uda, n=20; udazkena, n=23). Mehatxuen delituen kasuan, udazkenak gertakari kopuru handiena bildu zuen, gertakari guztien ia %8a. Gorroto-diskurtsoen gertakarien banaketa xelebrea da, neguan eta udan gailurra jotzen, kasu kopuru berarekin (n=11). Azkenik, tratu apalesgarriak udazkenean gehiago kontzentratzen dira, kasuen erdi baino gehiago urtaro honetan bilduz (n=10).


20. Irudia DELITU TIPOLOGIA URTAROAREN ARABERA (2024)



Bigarrenik, delituen banaketa aztertzen da urteko urtaroaren eta erreferentzia-ko kolektiboaren arabera. Ikus daiteke bezala, gorroto delitu arrazista edo xenofoboek ehuneko nahiko homogeneoa dute urtaro guztietan ($\bar{x}$ =%62), eta bereziki neguan, proportzioa %72raino iristen da (n=38). Hala ere, badirudi urtaroa erreferentzia-unitate gisa aztertzeak ez duela eragin handirik, gutxienez salatutako gertakarietan.




21. Irudia BABESTUTAKO KOLEKTIBOA URTAROAREN ARABERA (2024)



Asteazken zeharrek banaketari buruzko datuek adierazten dute gorroto delituen laurden bat igandean gertatzen dela (n=59, %25). Hori ostirala (n=27, %11) eta larunbata (n=33, %14) gehitzen badizkiogu, ikus daiteke gorroto delituen erdia (n=119, %50) asteburuan (ostiraletik igandera) erregistratu zela. Hori dela eta, egun horietan jendeak denbora gehiago ematen du etxetik kanpo eta merkataritza eta aisialdiko lekuetan ibiltzen da, eta horrek biktimak eta erasotzaile potentzialak elkar topatzeko aurrerak handitzen ditu.


22. Irudia DELITUAK ASTEKO EGUNAREN ARABERA (2024, N=236)





Ondoko grafikoak delitu-motak ehunekoetan banatzen ditu, lanegunetan edo asteburuan gertatu izanaren arabera bereizita. Ikus daitekenez, lesio-delituak da alde nabarmena duen delitu bakarra, asteburuetan nagusitasun handiagoa erakusten baitu lanegunetan baino, ia ehuneko 8 puntutako aldea izanik.

23. Irudia DELITU TIPOLOGIA ASTEGUN EDO ASTEBURUAREN ARABERA (2024)




Azkenik, ordutegiaren banaketari dagokionez²⁹, hurrengo grafikoetan ikus daiteken bezala, gorroto delituen proportziorik handiena (n=97) gauean kontzentratzen da (%41a 20:00etatik 5:59rako tartean). Proportzio hau handiagoa da arratsaldeko tartean sartzen bada, delituen %71 (n=168) 14:00etatik 19:59ra bitartean gertatu ziren. Egoera hau hiru lurralde historikoetan errepikatzen da, Araba nabarmentzen da, laginaren tamaina txikiagoa izan eta horrek proportzionaltasun estatistikoarengan daukan eraginagatik.


Delituen kontzentrazioa asteburuan eta gauean oso esanguratsua da. Gertakarien %50a ostiraletik igandera gertatzen dira, eta %41 gaueko ordutegian. Era berean, espazioari dagokionez, delituen kontzentrazioa kalean eta ostalaritzako establezimenduetan nabarmendu daiteke. Hau guztia aisialdi gaueko eta alkohol-kontsumoaren ereduarekin bat dator, eta azterketarako arrisku-faktorea izan liteke³⁰.

29. Ordu-tarteen banaketa nominalak honako tarte hauek jarraitzen ditu: goiza, 6:00-11:59; eguerdia, 12:00-13:59; arratsaldea, 14:00-19:59; gaua, 20:00-05:59.

30. SIVARAJASINGAM, V./ READ, S./SVOBODOVA, M./WIGHT, L./SHEPHERD, J., "Injury resulting from targeted violence: an emergency department perspective", *Criminal Behaviour and Mental Health*, Vol. 28, Num. 3, 2018, pp. 295-308.





24. Irudia DELITUAK EGUNEKO ALDIAREN ARABERA (2024, N=236)



Hurrengo grafikoak delitu mota bakoitzaren ehunekoak erakusten ditu. Mehatxuak denborarekin handitzen direla dirudi, goizean 6 gertakari daude eta gauean 18ra igotzen dira. Beste kasuetan, arratsaldean zein gauean proportzio handiagoa dago, eta hau bereziki nabarmena da lesioen kasuan. 2024an lesioen delituen erdia gauean gertatu da (n=45), egunean zehar gertatu diren kopuru berdinarekin. Hauek ia 5 delitutatik 1 dira.


25. Irudia DELITU TIPOLOGIA EGUNAREN ALDIAREN ARABERA (2024)






Azkenik, ordutegi banaketari dagokionez, hurrengo grafikoetan ikus daiteken bezala, gorroto delituen gehiengo arratsalde-gauetan pilatzen da (%62 18:00etatik 6:00etara). Kasuen banaketa egonkor mantentzen da 2023 urtearekin alderatuta.

26. Irudia DELITUAK ORDU-TARTEEN ARABERA (2024, N=236)



Ordutegi tartearak erreferentziazko kolektiboaren arabera aztertzen badira, ikus daiteke tarte gehienetan arrazoi arrazistek/xenofoboek eragindako delituak nagusitzen direla, nahiz eta kolektibo horren aurka egindako gertakarien gehiengo handia (n=50, %62) 18:00etatik 23:59etara gertatu. Orientazio eta identitate sexualagatik egindako delituen zati handi bat tarte berean gertatzen dela ikus daiteke, 18:00etatik 23:59etara (n=20, %25), eta neurri txikiagoan baina proportzio handiagoan, 00:00etatik 05:59etara (n=15, %32).

27. Irudia BABESTUTAKO KOLEKTIBOAK ORDU-TARTEEN ARABERA (2024)






1.2. Egozpenen banaketa³¹

Egotzitako edo ikertutako pertsonen dagokienez³², hurrengo grafikoak erakusten du ia bi herenak espainiarrak direla (%66), aurreko urtearekin alderatuta jaitsiera suposatzen due. Zehazki, 244 egotzitako pertsonetatik 160 espainiar hiritartasunekoak dira, eta horietatik 134 Euskadikoak dira (%84). Gainontzeko egozpenen dagokionez, 83 atzerriar jatorrikoak dira (%34), horien gehiengoa Afrikatik zetorren (%59), eta neurri txikiagoan, Erdialdeko eta Hego Amerikatik (%36).

28. Irudia EGOTZITAKO PERTSONAK. JATORRI GEOGRAFIKOAREN ARABERA (2024, N=244)



³¹. Egotzitakoak –edo ikertutakoak, LO 13/2015aren bitartezko LeCrim-en erreformaren ondoren– delitu bat egitea leporatzen zaien pertsonak dira, eta horiek direla eta Ertzaintzak polizia-diligentziak hasi izan dituenen.


³². Aurkeztutako datuak Ertzaintzak identifikatutako inplikaturako pertsonen dagozkie, jatorria edozein dela ere. Kontuan izan behar da 35 gertakariaren erasotzailea edo erasotzaileak ezin izan direla identifikatu (batzuetan, formalki ez behintzat), eta beraz, ez direla egotzita gisa sailkatu, lehenago aipatutako

sare sozial digitaletan presente dagoen "Lo que no te cuentan de Donostia" taldearen adibidean bezala. Modu berean, badaude hainbat kasu non delitu bakoitzeko pertsona bat baino gehiago egotzi/atxilotu diren. Bestalde, ikerketa honetarako, ez dira kontuan hartuko Euskadin jatorria duten baina EAETik at delitu bat egin duten pertsonak, nahiz eta ustez gorroto delitu bat egin izan.




Jatorriko lurralde historikoari dagokionez, egotzitako pertsonen kopurua Bizkaikoa da gehienbat (n=74, %30), ondoren Gipuzkoa (n=56, %30) eta oso urrun Araba, lau egotzitakorekin (%2). 2023an Bizkaiari marjin txiki bategatik gainditu ondoren, Gipuzkoa bigarren postura pasa da egotzitako kopuruan, 2016an erregistroa hasi zenetik ohikoa den egoera errepikatuz. 21 pertsona Espainiako gainerako probintzietakoak dira (n=21, %9), aurreko urtean baino bat gehiago. Azkenik, %3ko kasuetan ez da zehaztu egotzitakoen jatorrizko probintzia, guztira 8 pertsona.


29. Irudia EGOTZITAKO PERTSONAK. LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2024, N=244)



Ondoren, udalerrien arabera egotzitakoen banaketa erakusten da. Begia jotzen du Gasteizko ohiko kopurua 2024an are txikiagoa izatea. 2023an 9 egozpen baziren, 2024an 3 dira, euskal udalerrri guztien arteko %2a. Beste bi hiriburuetan, egotzitakoen kopuru bera erregistratzen da, Donostian 26 (%20) eta Bilbon 25 (%19). Aurreko urteetan ohikoa izan den bezala, Barakaldoko kopurua nabarmena da (n=21, %16), zeinak 2023an baino bi kasu gehiago erregistratzen dituen (n=19, %11) eta taularen goiko aldean bere postua mantentzen duen arren, aurreko urteetan baino gutxiago nabarmentzen den. Azkenik, aipagarria da Irunen egotzitakoen kopurua, neurri txikiagoan bada ere (n=7, %5).


30. Irudia EGOTZITAKO PERTSONAK. UDALERRIAREN ARABERA (2024, n=132)





Sexuaren arabera banaketari dagokionez, hurrengo grafikoak erakusten du 2024an proportzioa aurreko urteekin alderatuta zertxobait aldatu dela. Egotzitako gizonen kopurua %80raino heltzen den bezala (n=192, %79), egotzitako emakumeen erregistroak aurreko urteekin konparatutako jaitsiera nabarmenagoa da, 2023ko %25aren azpitik geratuz (n=52, %21).

31. Irudia EGOTZITAKO PERTSONAK. SEXUAREN ARABERA (2024)



Egotzitako pertsonen batez besteko adina 30 urtetakoa da, 2023an erregistratutako 34 urteekin alderatuta baxuagoa, egotzitakoen adinaren jaitsierarako joera finkatzen ari dela berretsiz. Gertakarien %80a 49 urte edo gutxiagokoak da. Nabarmena da 18 eta 29 urte bitarteko pertsonen tartea izatea ugariena (n=66, %27), 2023ko egoera alderantzikatuz³³, 30-39 eta 40-49 urteko taldeek erregistro kopuru bera partekatzen duten bitartean (n=48, %20); ondoren 18 urte azpikoak (n=34, %14) eta 50-59 urteko pertsonak (n=30, %12) daude. Gainerakoa nagusiki 60-69 urte arteko taldeak osatzen du (n=13, %5), eta ondoren 69 urte baino gehiagoko lau pertsonako talde txiki batek.


33. 2023an, talderik handiena 18 urtetik beherakoek osatzen zuten (n=78, %29), 2022aren hirukoiztuta, eta haren atzetik 18-29ko taldea zegoen (n=45, %17). Urruti geratzen da 2022an adin txikikoentzat erregistratutako %8a (n=21).



32.1. Irudia

EGOTZITAKO PERTSONAK. ADIN TARTEAREN ARABERA (2024)


EUSKADI (N=244)



32.2. Irudia

EGOTZITAKO PERTSONAK. ADIN TARTEAREN ARABERA (2024)


ARABA Araba (n=12)



32.3. Irudia

EGOTZITAKO PERTSONAK. ADIN TARTEAREN ARABERA (2024)


BIZKAIA (n=119)



32.4. Irudia

EGOTZITAKO PERTSONAK. ADIN TARTEAREN ARABERA (2024)


GIPUZKOA (n=113)





Bestalde, egotzitakoen adinari buruzko datuak generoaren arabera aztertzen badira, ikus daiteke, ohikoa den bezala, gizonezkoak direla nagusi adin-tarte guztietan. Aldea txikiagoa da 60-69 urteko tartean, e pertsona kopuru txikiagoa dela eta. Aitzitik, gizonen nagusitasuna bereziki nabarmena da 39 urte edo gutxiagoko pertsonetan: kasu guztietan, proportzioa %80 ingurukoa edo handiagoa da. Proportzio hau neurri txikiagoan betetzen da 40-49 urteko taldeetan (%75 gizon eta %25 emakume) eta 50-59 urteko taldeetan (%73 gizon eta %27 emakume).


33. Irudia EGOTZITAKO PERTSONAK. ADIN TARTEAREN ETA SEXUAREN ARABERA (2024, N=244)





Egotzitako adingabeei (n=35) arreta handiagoz begiratuz gero, ikus daiteke hamarretik lau 15 urte baino gutxiagokoak direla, eta gainerako seiak 15 eta 17 urte bitarteko taldeari dagozkiola. 15 urte baino gutxiagokoek mehatxuekin (n=5), derrigortzeekin (n=5) eta lesioekin (n=4) zerikusia zeukaten delituak egin zituzten, eta delitu horietatik 5 ziberespazioan gertatu ziren, beste 5 kalean eta 4 ikasketxe batean. Nabarmena da Araban egotzitako adingabe bakarra egotea. Azkenik, grafikoetan ikus daiteken bezala, Bizkaian eta Gipuzkoan egotzitako adingabeak banaketa heterogeneoari erantzuten diote: Bizkaian, bi heren (n=12) 15 eta 17 urte bitartekoak dira, Gipuzkoan talde horrek (n=12) delituen erdia suposatzen du.


34.1. Irudia EGOTZITAKO ADIN GABEKO PERTSONAK (2024)


EUSKADI (n=35)



**34.2. Irudia EGOTZITAKO ADIN GABEKO PERTSONAK (2024)****BIZKAIA (n=15)****34.3. Irudia EGOTZITAKO ADIN GABEKO PERTSONAK (2024)****GIPUZKOA (n=16)**

Hurrengo grafikoan ikus daiteken bezala, gorroto gertakariengatik egotzitako adingabeen gehiengoa gizonak da (n=27, %77), emakumezkoek %23a baino ez dute suposatzen (n=8). Zehazki, emakumeen presentzia sinbolikoa da 13 eta 14 urteko adin-tartean (n=1), eta 17 urteko taldean soilik hiru erregistro daude, 16 urteko taldean bi.


35. Irudia EGOTZITAKO ADIN GABEKO PERTSONAK. SEXUAREN ARABERA (2024, n=35)



Modu berean, hurrengo grafikoan ikus daiteke egozpen gehienak arrazakeriaren arloan gertatu direla (n=165, %68), ez da harritzekoa, gorroto gehienak gehienak motibazio hori dutela (%62) kontuan hartuz gero. Ondoren, biktimaren orientazio eta identitate sexualagatik egindako gorroto delituetan oinarritutako egotzitakoak daude (n=53, %22), ehunekoa gertakari guztien artean talde horrek duen pisuarekin bat datorrelarik. Egoera antzekoa gertatzen da orientazio politiko eta ideologiako taldeekin (n=13, %5), eta generoarekin (n=9, %4), non egozpen tasak talde bakoitzak gertakarien mapan duen pisuarekin bat egiten duten (%7 eta %4 hurrenez hurren).

Lurraldearen arabera banaketa begiratzuz gero, Arabako salbuespenarekin, zeinak bere mapa partikularri jarraituz arrazakeria edo xenofobiako 11 kasu (%91) eta orientazio edo identitate sexualeko bat (%8) erregistratzen duen; Bizkaia eta Gipuzkoak antzeko banaketa islatzen dute. Kontabilizazioan diferentzia minimoekin, ikus daiteke arrazakeriak Bizkaian (n=74, %65) eta Gipuzkoan (n=80, %67) antzeko kopurua dutela. Gauza bera gertatzen da orientazio edo identitate sexualarekin lotutako egotzitakoekin (Bizkaia, n=28, %25; Gipuzkoa, n=24, %20).


36. Irudia EGOTZITAKO PERTSONAK. BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2024)





Egotzitako adin gabekoei dagokienez, argi ikus daiteke ia kasu guztietan arrazoi arrazial edo xenofoboengatik edo orientazio edo identitate sexualagatik direla gertakariak, nahiz eta Bizkaian egozpen bat egon funtzionaltasun aniztasunagatik eta beste bat generoagatik. Hemen, bi kategoriek pisu antzekoa dute EAEn, xenofobiak egozpenen %45a ordezkatzeko eta orientazio sexualak %49a. Beraz, orientazio edo identitate sexualagatik gertakariengatik egozpenen proportzioa adingabeen artean ia bikoitza da egotzitako guztien multzoarekin alderatuta, gainerako tipologiek, arrazakeria eta xenofobia salbu, ia erabat galtzen dute garrantzia. Azkenik, Arabako adingabeen artean kasu bat soilik erregistratu zen, arrazoi arrazista edo xenofoboagatik.


37. Irudia EGOTZITAKO PERTSONAK. BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2024)




Azkenik, delitu motaren arabera egotzitakoen banaketari dagokionez³⁴, aurreko urteetan bezala, eta 2023arekin alderatuta proportzio handiagoan, lesioekin lotutako egozpenak nagusitzen dira (n=105, %43), aurretik adierazi den bezala, delitu mota ohikoena dena, eta erregistratutako gertakarien %38a ordezkatzeko duena. Bigarren eta hirugarren postuan, mehatxuak (n=52, %21) eta derri-gortzeak (n=26, %11) egiteagatik egotzitako pertsonak daude, aurreko urtean erregistratutakoarekin alderatuta postuak trukatzeko eta elkarren artean distantzia handiagoz, mehatxuen delituen prebalentzia handiagoa dela eta.

Distantzia txikira daude gorroto diskurtsoagatik egozpenak (n=23, %9) eta tratatu apalesgarrienak (n=19, %8). Sexu erasoagatik egozpenak 6 kasura igotzen dira (%2), ondoren irainak (n=4, %2), lapurreta (n=3, %1) eta egozpen marjinalak.


³⁴. Delitu tipologiaren arabera erasotzaile kopuruari buruzko ikuspegi orokorra izateko, atxilotutako pertsonen buruzko grafikoa ere kontuan hartu behar da.



38.1. Irudia EGOZTITAKO PERTSONAK. DELITU TIPOLOGIAREN ARABERA (2024) EUSKADI (N=244)



38.2. Irudia EGOZTITAKO PERTSONAK. DELITU TIPOLOGIAREN ARABERA (2024)
Araba (n=12) / Bizkaia (n=113) / Gipuzkoa (n=119)






1.3.

Atxiloketen banaketa

2024an Ertzaintzak guztira 25 pertsona atxilotu zituen, 2022an baino bost gehiago³⁵. Jatorriari dagokionez, atxilotuen gehiengoa atzerritarrak dira (n=16, %64), %36ak espainiar hiritartasuna dute³⁶. Atxilotu atzerritarren artean, 12 kontinente afrikarratik datoz (%48) eta 4 Ameriketatik (%16). Atxiloketa gehienak pertsona bakar batek eragindako gertakari batekin lotuta daude. Hala ere, behin hiru pertsona atxilotu zituzten, eta beste kasu batean bi pertsona atxilotu zituzten gertakari berean.


39. Irudia ATXILOTUTAKO PERTSONAK. JATORRI GEOGRAFIKOAREN ARABERA (2024, N=25)




Espainiar nazionalitateko 8 atxilotuetatik, 7 Euskadikoak dira. Euskal jatorriko atxilotuen gehiengoa gipuzkoarra da (n=5, %20), bi bizkaitarrak dira (%8).

³⁵. 2023an beherakada nabarmena izan ondoren, kopuruak gora egin du, baina ez da iritsi 2022an erregistratutako gorenera (n=44). Nolanahi ere, datu hori nabarmen aldatzen da serie historikoan, eta ez dirudi zerikusirik duenik erregistratutako gorroto gertakarien kopuruarekin: 21 atxiloketa 2021ean, 49 2020an, 8 2019an, 29 2018an, eta 7 atxiloketa 2017an.

³⁶. Hiritartasun espainiarreko atxilotuen artean, baten probintzia erregistratu gabe geratu zen.

**40. Irudia ATXILOTUTAKO PERTSONAK . JATORRIKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2024, N=25)**

Euskadiko atxilotuen jatorrizko lurraldeari dagokionez, gehienak Donostiakoak dira ($n=4$, %50), eta gainerako erdia beste gipuzkoar udalerrri batekoak, Errenteriakoak, eta Bizkaikoak: Bilbo, Portugalete eta Arrigorriagakoak. Azken udalerrri honetan gertatu zen urteko gertakari mediatikoenetako bat³⁷: jatorriz asiarraren euskal herritar batek, denda baten jabeak, gutxienez hiru pertsonako talde baten erasoaren pairatu zuen, erasotzaileetako bat atxilotu zuten, 20 urteko gizon bat, gorroto delituegatik eta lesioengatik akusatuta. Erasotutako herritarra larri zauritu zuten eta ebakuntza kirurgikoa behar izan zuen beso, hanka eta aurpegiko lesioengatik, erasoaren arrazakeriagatik hitzezko mehatxuekin hasi zen. Hitzezko mehatxu hauek denbora luzez jazo izan ziren, baina ez ziren gertakari hau bezain bortitzak izatera iritsi.


41. Irudia ATXILOTUTAKO PERTSONAK . JATORRIKO UDALERRIAREN ARABERA (2024, n=8)

Demografiari dagokionez, azpimarratu behar da atxilotutako pertsona guztien artean bi bakarrik izan zirela emakumeak (%90), aurreko urteko portzentaiaren antzekoa, non pertsona bat identifikatu gabe geratu zen.


37. Lurralde esparru ezberdinetako hainbat hedabidek eman zuten gertakariaren berri:

<https://www.diariovasco.com/sociedad/investigan-delito-odio-brutal-paliza-hombre-comercio-20241228132857-nt.html>, <https://www.deia.eus/sucesos/2024/12/28/detenido-dar-brutal-paliza-hombre-9102051.html>, <https://www.eitb.eus/es/noticias/sociedad/detalle/9660885/en-libertad-detenido-por-dar-paliza-al-dueno-de-bazar-chino-en-arrigorriaga/>, https://www.eldiario.es/euskadi/insultos-paliza-grupal-propietario-bazar-chino-arrigorriaga-ultimo-delito-odio-euskadi_1_11934465.html, <https://cadenaser.com/euskadi/2024/12/28/investigados-por-delito-de-odio-los-autores-de-una-paliza-que-deja-un-herido-grave-en-arrigorriaga-radio-bilbao/>.



**42. Irudia ATXILOTUTAKO PERTSONAK. SEXUAREN ARABERA (2024, N=25)**

Atxilotuen batez besteko adina 35 urtekoa da, 2023koa baino bi urte txikiagoa³⁸. Bere mediana, 28 urte, adinaren arabera banaketaren asimetria adierazten du, grafikoan bisualki agertzen den desoreka. Ildo horretan, atxilotuen adin tartea 19 urtetik 83 urtera artekoa da. Adin-tarteen banaketak adierazten duenez, 18-29 urte (n=13, %52) nagusitzen dira nabarmen. Atxilotutako gainerako pertsonen dagokierik, adin-tarte hauen artean banatzen dira: 30-39 urte (n=3, %12), 40-49 urte (n=5; %20), 50-59 urte (n=2, %8), 60-69 urte (n=1, %4) eta 69 urtetik gorako pertsona bat. Atxilotuen %84k 49 urte edo gutxiago dituzte, hau lehenago adin talde honen egozpenen (%80) inguruan esandakoarekin bat dator.


**43. Irudia ATXILOTUTAKO PERTSONAK. ADIN-TARTEAREN ARABERA (2024)
EUSKADI (N=25) / BIZKAIA (n=8) / GIPUZKOA (n=17)**

38. 2023an, batez besteko adina 10 urte igo zen aurreko urtekoarekin alderatuta.




Jarraian, atxiloteta gehien egon diren kategoriei erreparatuz gero, ikus daiteke aurten atxiloteta gehienak arrazakeriaren eta xenofobiaren esparruan izan direla (n= 19, %76), 2023ko datua baino hamar puntu gorago. Motibazio hori Bizkaian (n=6, %75) zein Gipuzkoan (n=13, %76) errepikatzen da. Identitate edo orientazio sexualak askoz proportzio txikiagoan biltzen ditu atxilotetak, bai Bizkaian (n=4, %16), bai Gipuzkoan (n=2, %12) ere.


44.1. Irudia ATXILOTUTAKO PERTSONAK. BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2024) EUSKADI (N=25)



44.2. Irudia ATXILOTUTAKO PERTSONAK. BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2024) BIZKAIA (n=8)






44.3. Irudia ATXILOTUTAKO PERTSONAK. BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2024) GIPUZKOA (n=17)



Azkenik, atxilotuak delitu tipologiaren arabera banatzeari dagokionez (n=25), hurrengo grafikoan lesio tipo penalak nabarmentzen dira (n=8, %32), 2023koak baino maila pixka bat altuagoetan mantentzen direnak, eta mehatxuak (n=6, %24), horiek ere pixka bat jaisten bait dira. Atzetik datoz, urrutitik, baina presentzia handi samarrarekin, sexu-erasoa (n=4, %16) eta hilketa-saiakera (n=2, %8). Bizkaian lesioek buruan jarraitzen dute (n=4, %50), jarraian 3 sexu eraso (%37) daudela. Gipuzkoan aniztasuna handiagoa da, nahiz eta mehatxuek (n=6, %35) zein lesioek (n=4, %23) banaketa orokorra errepikatzen duten.



**45.1. Irudia ATXILOTUTAKO PERTSONAK . DELITU TIPOLOGIAREN ARABERA (2024)****EUSKADI (N=25)****45.2. Irudia ATXILOTUTAKO PERTSONAK . DELITU TIPOLOGIAREN ARABERA (2024)****BIZKAIA (n=8)****45.3. Irudia ATXILOTUTAKO PERTSONAK . DELITU TIPOLOGIAREN ARABERA (2024)****GIPUZKOA (n=17)**

Atxilotutako pertsonen berezitasunetan sakontzeak xehetasun deigarriak eskaintzen ditu, nahiz eta gorroto delituen maparen irudi orokorrarekin bat etorri. Atxilotutako espainiar nazionalitateko 9 pertsonetatik 8 EAEkoak dira eta 8 nagusiki mehatxu delituengatik (9 kasuetatik 4, atxilotutako emakume bakarra barne) eta arrazoi arrazista edo xenofoboengatik egotzi zituzten, biktima atzeritar jatorrikoa baitzen, Afrikarkoak eta Latinoamerikakoak eta, kasu batean, Asiakoak (lehenago aipatutako kasua, lesioengatik atxilotutakoa). Gainerako kasua sexu erasoaren delitua da, bi emakume biktimen orientazio sexuala zela eta gauzatutakoa. Biktimizatutako pertsonen batez besteko adina 33 urte ingurukoa da.



Atxilotutako atzerritar jatorriko pertsonen kasuan, ia erdia lesio delituengatik egotzi zituzten (16 kasuetatik 7), eta horrez gain, 2 mehatxu delitu, 2 sexu eraso delitu, derrigortze delitu 1, tratu apalesgarriagatik delitu 1 eta indarkeriaz egindako lapurreta delitu 1. Hemen kokatzen dira, halaber, hilketa saiakera mailagatik atxilotutako bi lagunak. Biktimak ere atzerritarrak izan ziren, gehienak Ipar Afrikakoak, baina baita hiritartasun espainiarreko 6 pertsona ere (identitate edo orientazio sexualak eragindako 3 delitutan banatuta, arrazakeria edo xenofobiak eragindako 2 delitutan eta generoko batean), eta gainerakoa beste jatorrien artean banatu zen. Azken horien artean motibazio xenofoboa da nagusi, eta biktimizatutako pertsonen batez besteko adina 32 urte ingurukoa da.

1.4. Biktimizazioen banaketa³⁹


2024an, guztira 271 biktimizazio izan dira Euskadin gorroto gertakariengatik, hau da, 2023an erregistratutako biktimizazioak (n=305) baino gutxiago (-%12)⁴⁰. Bestalde, biktimak atzerritarrak dira biktimizazioen %66an (n=180), 2023koa baino kopuru handiagoa termino erlatiboetan, eta Latinoamerikatik eta Afrikatik etorritako biktimak dira ugariena, %33a eta %26a, hurrenez hurren; proportzio horiek ere hazi egin dira aurreko urtearekin alderatuta. Afrikatik datozen biktimei dagokienez, aurreko urteetan bezala, azpimarratzekoa da Ipar Afrikatik jatorriko pertsonen presentzia urtez urte handitzen ari dela (n=52); izan ere, 2024an gorroto delituen biktimen % 19 ziren⁴¹. Biktimen gainerako %33a espainiarrak dira (n=91), eta lagin orokorraren %27 Euskadikoak (n=74).

³⁹. Kasu honetan, ikertuen eta atxilotuen kasuan gertatzen zen bezala, biktimizazio kopurua ez dator bat gorroto delituen kopuru errealekin, hainbat arrazoiengatik: GERTAKARI batzuek biktima zuzen bat baino gehiago izan zuten; beste batzuetan, ez dago biktima zehatzik, EHUko irakaslearen kasuan, adibidez, gorrotoa delituaren jomuga kolektibo oso bat izan zen.

⁴⁰. Aurreko urtean jada biktimizazioak proportzio handiago batean murriztu ziren, zehazki, %47an, 2022an 572 erregistratetik 2023an 305 erregistratera pasatuz.

⁴¹. Ipar Afrikako jatorriko biktimen presentzia nabarmena izan da azken urteetan: 2023an %16, 2022an %15, 2021ean %13, 2020an %11, 2019an %9, 2018an %13, 2017an %12.




**46. Irudia BIKTIMAK. JATORRI GEOGRAFIKOAREN ARABERA (2024, N=271)**




Ondoren, biktimen banaketa aztertzen da jatorrizko lurralde historikoaren edo probintziaren arabera, biktimizazio guztiak kontuan hartuta. Espainiako Estatutik etorritako biktimen artean, ia gehienak Arabakoak, Bizkaikoak edo Gipuzkoakoak (n=74, %81) ziren, eta biktimen %19a bakarrik zen beste probintzietakoa (n=19). Lurralde historikoen arteko banaketari erreparatuz gero, datuek erakusten dute jatorria Bizkaian duten biktimek biltzen dituztela berriro biktimizazio gehienak (n=43, %47; guztizkoaren %16a)⁴²; Euskadin jatorria duten biktimen beste erdia, berriz, Gipuzkoan (n=23, % 25; guztizkoaren %8a) eta Araban (n=8, % 9; guztizkoaren % 3a) banatzen dira.

47. Irudia BIKTIMAK. JATORRIKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2024, N=271)



Euskadiko biktimen jatorrizko udalerriari dagokionez, ohikoa den bezala, hiriburuak nabarmentzen dira: Bilbo (n=11, %15), Donostia (n=9, %12) eta Barakaldo (n=9, %12)⁴³, azken honek Gasteiz lekualdatzen du (n=6, %8). Gainerakoen artean nabarmentzen dira Santurtzi (n=5, 7%) eta Getxo (n=3, 4%) Bizkaian; Irun (n=4, %4) Gipuzkoan; eta Laudio (n=2, %3) Araban.

48. Irudia BIKTIMAK. JATORRIKO UDALERRIAREN ARABERA (2024, n=71)



Jarraian, biktimen sexuari erreparatzen badiogu, biktima gehienak gizonezkoak direla ikusiko dugu (n=162, %60), 2023an baino apur bat gehiago. Hala ere, ikusten da biktima diren emakumeen kopurua hazi egin dela, 2019an erregistratu zuen %30eko minimotik, 2024an %40ra (n=109), nahiz eta termino

⁴² Bizkaiko biktimak %53a ziren 2023an, kopuru %47a 2022an, eta %53a 2021ean.


⁴³ 2023an Barakaldo lehen postuan zegoen biktimen jatorrizko udalerri gisa (n=20, %22).





absolutuetan jaitsi egin den 2023koarekin alderatuta. Aldakuntzak ez dira bereziki esanguratsuak, Gipuzkoan izan ezik, non gizonen proportzioa handiagoa den; biktimizazioen bi heren gizonezkoak dira ($n=70$) eta gainerako herena emakumezkoak ($n=35$, %33).


49. Irudia BIKTIMAK. SEXUAREN ARABERA (2024)




Biktimen batez besteko adina 35 urtekoa da, 2023ko⁴⁴ batez besteko adina ($\bar{x}=34$) baino urtebete gehiago. Adin-tartea 5 urtetik 67 urtera bitartekoa da, nahiko simetrikoki banatuta; izan ere, batez bestekoa eta mediana bat datoz balioan. Hiru biktimatik ia bik 39 urte edo gutxiago dituzte ($n=56$, %62), proportzioa ia 10etik 9ra igotzen da 49 urte edo gutxiagoko pertsonak kontuan hartzean ($n=238$, %88), eta horiek adin-tarte hauetan kontzentratzen dira: 18 urte baino gutxiago ($n=25$, %9), 18-29 urte ($n=74$, %27), 30-39 urte ($n=69$, %25). Gainerako tarteei dagokienez, 50 eta 59 urte bitartekoek kasuen %10a dira ($n=28$), eta 60 urtetik gorakoek ($n=5$) berriz, %2a. Aurreko urtearekin alderatuta, 40-49 urteko adin-tartean jasan du aldaketarik nabarmenena, 2023an ehuneko sei puntu beherago baitzegoen ($n=59$, % 19).

Banaketak ezberdinak dira, nahiz eta Bizkaiak eta Gipuzkoak nolabaiteko harremana izan. Bi kasuetan, batezbestekoak 34 urte ingurukoak dira, eta 39 urte edo gutxiagoko biktimak guztizkoaren %60 inguru dira, nahiz eta Bizkaian ($n=92$, %64) proportzioa Gipuzkoan ($n=26$, %62) baino pixka bat handiagoa izan talde horrentzat. Dagokion grafikoan ikus daitekeen bezala, Araban batez bestekoa handiagoa da ($\bar{x}=38$), baina banaketak adin handiago batera desplazatzen du mediana ($\bar{x}=41$). Arabako biktima gehienak 30-59 urte bitartekoak dira ($n=18$, %78).

⁴⁴. Biktimen batez besteko adina, serie historiko osoan, 32-37 urte bitartekoa izan da, 2020a izan ezik, orduan batez bestekoa 28 urtera jaitsi baitzen bat-batean.




50. Irudia **BIKTIMAK. ADIN TARTEAREN ARABERA (2024)**
EUSKADI (N=271) / ARABA (n=23) / BIZKAIA (n=143) / GIPUZKOA (n=105)



Arreta biktima adingabeengan jarritz gero (n=25, %9), 2023ko datuekin alderatuta jaitsiera nabarmena hautemateaz gain (n=42, %24), biktima gehienak 14 eta 18 urte bitarteko nerabeak direla ikus daiteke (n=18, %72), aurreko urtekoan bezala (n=27, %64), nahiz eta mutur horretan proportzio eta metaketa handiagoan izan. Gainerako biktima adingabeak 5 eta 13 urte bitartekoak dira (n=7, %28).

Araban biktimizazio bakarra egon zen, 11 urteko pertsona bat. Bizkaian, %72a 14 urtetik gorakoak ziren (n=13); Gipuzkoan, berriz, banaketa guztiz simetrikoa da (n=6), 15 urteko batez bestekoaren ingurukoa.


51. Irudia **BIKTIMAK - ADIN GABEKOAK. ADINAREN ARABERA (2024)**
EUSKADI (n=23) / BIZKAIA (n=18) / GIPUZKOA (n=6)






Aurreko urtean bezala, adin-tarteak sexuaren arabera banatuta, berriro ere ikusten da gizonak direla nagusi talde guztietan, bereziki 18 eta 29 urte bitartekoetan. Gizonezkoen batez besteko adina 34 urtekoa da, eta emakumezkoena, berriz, bi urte luzeagoa ($\bar{x}=36$). Gehiengoak bere horretan jarraitzen duen arren, 40-49 urteko tartean aldea txikiagoa da, 37 gizon eta 34 emakumekin.

52. Irudia BIKTIMAK. ADIN TARTEAREN ETA SEXUAREN ARABERA (2024, N=271)




Bestalde, hurrengo grafikoak adierazten duen bezala, biktimizazioen ia bi heren arrazakeriaren esparruan gertatu dira ($n=174$, %64), hau da, 2023. urtearekin alderatuta, ehunekoetan 2 puntu igo dira. Horien atzetik, biktimaren orientazio eta identitate sexualaren ondorioz sortutako biktimizazioak daude ($n=58$, %21), aurreko urtearekin alderatuta zertxobait gora egin dutenak. Bi kolektiboak batuz gero, biktimizazioen %86 dira, bi kolektiboek gertakarien mapa globalean duten pisuaren oso antzeko ehunekoa. Hirugarren eta laugarrenik, ideologia eta orientazio politikoagatik ($n=18$, %7) eta generoagatik ($n=9$, %3) egindako biktimizazioak ditugu. Generoaren arabera biktimizazioak murriztu egin dira 2023ko datuekin alderatuta ($n=19$, %6). Distantzia txikiagora agertzen dira sinesmen edo praktika erlijiosoak ($n=7$, %3); antisemitismoa ($n=2$, %1) eta desgaitasuna ($n=2$, %1), zeina nabarmen jaisten baita.


Lehenengo bi postuak hiru lurralde historikoetan errepikatzen diren arren, arrazakeria eta xenofobiaren ezberrik gabeko nagusitasuna tartean, ondorengo postuak orientazio politiko edo ideologikoaren, sinesmen eta praktika erlijiosoaren, eta generoaren artean pibotatzen dute, Gipuzkoan nabaritasun berezia lortuz ($n=8$, %8).



53. Irudia **BIKTIMAK. BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2024)**




Kolektibo babestuen eredua antzekoa da arreta biktima adingabeengan jarritz gero (n=25). Kasu hone-tan, arrazakeria edo xenofobia kolektiboaren pisua nabarmentzen da (n=19, %76), biztanleriaren batez bestekoaren gainetik kokatuz (%62). Hala ere, orientazio edo identitate sexualagatiko biktimizazioak batezbestekoaren azpitik daude (n=5, %20). Azpimarratzekoa da Araban biktimizazio bakarra egon zela arrazakeria edo xenofobiagatik.


54. Irudia **BIKTIMAK – ADIN GABEAK. BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2024)**

Azkenik, delitu-tipologiaren arabera biktimen banaketari dagokionez, hurrengo grafikoak erakusten du lesioak (n=110, % 41) eta mehatxuak (n=58, % 21) jasan dituzten biktimak 10etik 6 direla (%62), bi delituertako 2023koa baino proportzio handiagoan. Hirugarren, laugarren eta bosgarrenik, gorroto diskurtsoa (n=29, %10), derrigortzeak (n=24, %9) eta tratu apalesgarria (n=19, %7) ikusten ditugu, termino absolutu zein erlatiboetan behera egiten dutenak, nahiz eta tratu apalesgarria kopuru txikian igotzen den.


55.1. Irudia **BIKTIMAK. DELITU TIPOLOGIAREN ARABERA**

EUSKADI (N=271)





55.2. Irudia **BIKTIMAK. DELITU TIPOLOGIAREN ARABERA** **Araba (n=23) / Bizkaia (n=143) / Gipuzkoa (n=105)**





1.5.

Ondorioak

1.5.1. GERTAKARIEN KOPURUA, GUZTIRA

2024. urtean delituak izan daitezkeen 236 gorroto gertakari erregistratu dira Euskadin.

Azken urteetako gertakarien erregistro historikoa kontuan hartzen badugu, hau da, 2016 (124), 2017 (129), 2018 (130), 2019 (105), 2020 (241), 2021 (277), 2022 (435) eta 2023 (281), 2024 honetan, aurreko urtean bezala, nabarmen jaitsi dira. 2021etik 2022ra emandako datuek gorakada nabarmena izan zuten (%57), eta 2022tik 2023ra %35 jaitsi ondoren, 2024an %16 jaitsi da. Azken hau ez da ausazkoa. Pandemia aurreko garaiarekin alderatuta, gertakari zifra nahiko altua izaten jarraitzeaz gain, berrikuntza operatibo garrantzitsu bat dago, zeinak lagundu baitezake gertakari kopuru horren murrizketa absolutua azaltzen, iazko txostenean adierazi bezala, eta, bereziki, “genero-arrazoiei” buruzko gertakarien murrizketaren kausa ere badena. Izan ere, 2023an, aldaketa bat gertatu zen Ertzaintzan gorroto delituak eta gertakariak aztertzeari eta kudeatzeari dagokionez, eta, lehen aldiz, Ertzaintzaren Koordinazio eta Lan-kidetzaren Unitatearen barruan dagoen Ertzaintzaren Koordinazio Operatibo eta Teknikorako Atala (SCOTI) arduratu zen horretaz. Jauzi kualitatibo hau erabaki estrategikoa da kriminalitate mota honen aurkako borroka eta prebentzioa indartzeko. SCOTIk zeregin hori bere gain hartu zuenean, gainera, Fiskaltzak helburu bikoitza zuten gorroto gorabeherak ikertzeko eta erregistratzeko emandako orientabideetan oinarritutako zenbait doikuntza-irizpide eman zituen: alde batetik, iraganean atzematzen ziren eta itxuraz baino ez ziren gorrotozko gertakariak kontuan hartu gabe uztea; bestetik, bereziki genero-arrazoiei dagokienez, koordinazio-lanari ekitea talde horretako gorroto delituen erregistroaren eta, zentzu hertsian, juridikoki eta penalki genero-indarkeria (indarkeria matxista) deitu izan denaren artekoan.

2023 Txostenean jada adierazi genuen gorroto gertakari tradizionalen (xenofobia-etnofobia, homofobia, transfobia...) estatistikaren funtsezko egitura aldatzeko arriskua zekarrela genero (indarkerien) gertakariekin modu desegokian gurutzatzeak. Hori dela eta da komenigarria da estatistika horiek — emakumearen aurkako indarkeria versus (beste) gorroto delituak— zorrotz bereizteko joera. Alde horretatik, badirudi egokiena dela bi txosten desberdinetan bereiztea emakumearen aurkako indarkeria gertakari guztien multzo estatistikoaren azterketa, alde batetik; eta, bestetik, modu independentean, gorroto gertakariena. Hala ere, honi gehitu behar diogu genero-arrazoiengatik gorroto gertaeretatik isolatutako estatistika batek Euskadiko indarkeria matxistaren irudia, osatugabea izateagatik, desitxuratu dezakeela, eta baita gai honen inguruko hutsalkeria transmititzeko arriskua plazaratu. Hori dela eta, hausnartu egin beharko litzateke txosten honek genero-arrazoiengatik gorroto gertakariak testuinguruan jartzen lagunduko lukeen indarkeria matxistaren ikuspegi orokor bat jasotzearen behararen inguruan.



1.5.2. GERTAKARIEN JOMUGA-KOLEKTIBOEN MAPA

Erregistratutako delituen % 62a (146 kasu) biltzen dituzte 2024an izaera arrazista edo xenofoboko gertakariak, gorroto maparen bi heren izatera gerturatuz; horrek esan nahi du gisa horretako gertakarien ehuneko pisua jaitsi egin dela aurreko urtearekin alderatuta (%64 2023an). Edonola ere, gertakari arrazisten kopuruak ere behera egin du kopuru absolutuetan, 146 kasu erregistratu baitira, iazko 180 kasuen aldean (-%19). Azken kasu horretan, euskal poliziak horri buruz emandako jarraibide berrien araberrako polarizazio-faktoreen aplikazio zorrotzagoak ere eragina izan dezake.

Bestalde, sexu-orientazioaren eta sexu-identitatearen eremuak gertakarien %23a erregistratu ditu (54 kasu), eta 2022ko pisu erlatibora itzuli da, nahiz eta, termino absolutuetan, urte haren erdia izan (96, 2022an). Nolanahi ere, aurtan (n=54; % 23) ehuneko eta kopuru absolutuetan igo da 2023. urtearekin alderatuta (n=45; % 16). Hirugarrenik, ideologian eta orientazio politikoan oinarritutako gorroto delituak daude; gorroto delituen ia %7a biltzen dute (16 kasu), eta pixka bat jaitsi dira (ia ehuneko puntu bat), bai pisu erlatiboan, 2023koarekin alderatuta, bai kasu kopuru absolutuan (6 kasu jaitsi dira, n=22tik, 2023an, n=16ra).

Laugarrenik, generoagatiko delituek nabarmen egin dute behera, erregistratutako gertaeren %4raino (n=18; 2023; n=9; 2024 -%50) eta, hala, 2022 urtean izandako hirugarren lekua galdu dute. Urte horretan, termino absolutuetan, 88 kasutik 18ra jaitsi zen (-%80). 2023ari dagokionez, jaitsiera mantendu egin da, baina proportzio txikiagoan, ehuneko 2 puntuko jaitsierarekin.

Bestalde, pisu handiena duten kolektiboetatik oso urrun egon arren, mapa dibertsifikatu egiten da neurri bateraino; hala, ia %4a dira sinesmen edo praktika erlijiosoen (n=6), aniztasun funtzionalaren (n=2) eta beste kategoriatzatzen (n=1) kategoriatzatzen gertakariak. Aporofobia eta adinaren kategoriek, aldiz, ez dute gertakaririk izan 2024an.

2022ko gertakarien gorakadaren ondoren, gorroto gertakarien kopuru globalak behera egiten jarraitzen du 2024an, serie historikoaren urteko batez bestekoaren gaintetik mantentzen bada ere (121 kasu batez beste 2016tik), eta krisi pandemikoaren aurreko urteetan izandako gertakarien kopuruaren bikoitzaren gaintetik mantentzen bada ere. Badirudi murrizketa-fase bat egonkortu dela, 2022ko maximo historikoaren erreferentea (N=435) eta aurreko urtearekiko jaitsiera handia (N=277) kontuan hartuta..

Nolanahi ere, gertakarien murrizteak ez die berdin eragiten babestutako kolektibo guztiei. Hala, kolektibo etnikoaren (arrazakeria, xenofobia, sinesmen erlijiosoak, orientazio politikoa eta antisemitismoa) in extenso aintzat hartuta %72koa da, hau da, gorroto maparen hiru laurden inguru. Ikuspegi horretatik ez dago aldaketa nabarmenik iazkoarekin alderatuta. Hala ere, espektro horren barruan arrazakeriak eta xenofobiak, zentzu hertsian, nolabaiteko egonkortasuna dute, kolektibo ideologikoak beherantz jarraitzen du eta orientazio/identitate sexuala ezaugarri duen taldea erreuperatu egin da, eta gora egin du, bai portzentaian, bai eta gertakari kopuru absolutuan ere. Aitzitik, sexu-taldeak in extenso kontuan hartzeak (sexu orientazio eta identitatearen eta genero identitate/arrazoien ondorioz egindako delituak bilduz)⁴⁵ ez du islatzen LGBTIQ+ fobiaren igoera nabarmena, neurri

45. UPV/EHUKO GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN UNESCO KATEDRA /ERTZAINZA, "Euskadiko Gorroto-gertakariak buruzko 2017ko txostena", Eusko Jaurilaritza-Gobierno Vasco, 2018, 26. orr. Eta hurrengoak.





handi batean, genero-arrazoiengatik egindako gorroto delituek nabarmen egin dutelako behera. In extenso (zerrenda etnikoa, sexu-kolektiboen zerrenda...) ikuspegia, itxuraz, egonkortu egin da (%70a baino gehiago etnia, %22a baino gehixeago sexu-taldeak), baina aldaketa nabarmenekin azpitalde bakoitzeko barne-dinamikei begira.

Azkenik, nabarmendu behar da gertakari gutxien izan dituzten kategorietan berreskuratu egin direla sinesmenen eta erlijioaren arabera gertakarien erregistroak (n=6; aurreko urtekoan ez zen gertakariirik egon). Hala ere, bai azken hori zein aniztasun funtzionalari dagokiona (n=2) bere horretan mantentzen dira, adinarengatik edo zero erregistrodun aporofobiaren gertakarien kasuan bezala, horrek arazo larri batera garamatza: urtez urte zailtasunak daude gertakari horiek zifra beltzetik ateratzeko.

1.5.3. DELITU TIPOLOGIAK

I. TALDE PREBALENTEAK.

Zortzigarren txosten honetan, delitu gertakarien bi taldeak mantentzen dira, lesioak (90 kasu: %38) eta mehatxuak (48 kasu: %20), delituzko talde hauek besteeikiko distantzia nabarmenera daude. Haien arteko distantzia aurreko urtekoa baino handiagoa da, eta lesioek pisu handiagoa dute. Biek batera delituzko gertakarien %58 hartzen dute, hau da, gorroto maparen erdia baino gehiago.

II. INDARKERIAZKO GERTAKARIAK.

Lesioak multzoaren herena baino gehiago dira (90 kasu: %38), aurreko txostenetan aipatu den bezala, jokabideen erreferentzia-nukleoa izango lirateke, ZKko 22.4 artikuluko erantzukizun kriminala aldatzen duen inguruabarraren arabera kontuan hartuta. Aurten, gainera, gehiago erregistratu dira mehatxuen (48 kasu: %20), derrigortzeen (22 kasu: %9) eta tratu apalesgarrien (19 kasu: %8) aurrean. ZKren 22.4 artikulua larrigotzea aukera jasotzen duten tipologia horien guztien artean, delitu guztien hiru laurden baino gehiagoren kuota lortzen du (% 76).

Nolanahi ere, ohartarazi behar da larritasun handieneko gorroto indarkeria hilketen, erailketen, lesio larrien eta sexu-eraso larrien inguruan kontzentratuko litzatekeela. Urte honetan, 7 sexu-eraso delitu (2023an baino 4 gehiago) eta hilketa-kasu bat (burutu gabeko delitua) daude barne hartuta. Alde horretatik, egoerak erakusten du aurreko txostenen ildo bereko larritasun-mailak daudela, eta oraingoz alarma-seinalerik ez dagoela.

Ekintzeko delituekin lotutako dinamika bateragarria duten beste delitu batzuekin in extenso aintzat hartuz gero (hurrengoak batuta: lesio-delituak n=90, lapurretak n=2, sexu-erasoak n=7, kalteak n=8, sekretuak ezagutarazi eta agerraraztea n=1, hilketa n=1, ebasketa n=1), %46ko (n=110) portzentaia ematen dute potentzialki delituzko gertakariei dagokienez. Hala ere, (ekintzen) delitu-mapa gertakari larrien inguruan egonkortzeko joera leheneratu egin da, adierazpen-motako gertakariekin (adierazpen-delituak) alderatuta, nahiz eta aurreko urtearekin alderatuta moderatuki alderantzikatu da. Hala ere, azpimarratu behar da, berriro ere, adierazpen-delituak edo hitzez egindako delituak nagusitzen direla.



III. "HITZEZKO" GORROTO DELITUAK («hate speech» zentzu zabalean).

Ekintzeko gorroto delitu zorrotzekin alderatuta, gorroto propagandako gertakariak urte honetan berriro nagusi bihurtu dira. Mehatxuak (n=48), gorroto hizkuntza zorrotza (n=30) eta irainak (n=4) batuz, %35era (n=82) iritsi dira, eta %52ra (n=123) ere irits daitezke kategoria orokorrak baina hurbilak diren derrigor-
tzeak (n=22) eta tratu apalesgariak (n=19) batuta.

Azken txostenetan jada jakinarazi den bezala, tratu apalesgarriko kasuen taldea xehetasunez aztertzeak zalantzak eta/edo zigortzeko hutsune posibleak estali nahia islatu dezake, mehatxatzeko, iraintzeko eta humiliatzeko/arbuiatzeko jokabideen tipifikazioa testuinguru lausotan kokatuta gorrotozko gertakariak tipifikatzeko orduan.

Delitu-mapak, beraz, berriro baieztatzen du adierazpeneko gertakarien %22ko "gainordezkaritza" neurritsua, 2023ko norabidearen aurkakoa, urte horretan lehen aldiz gailendu bait ziren ekintzazko gertakariak propaganda-jokabideen aurrean⁴⁶.

1.5.4.

ESPazio-DENBORAREN BANAKETA, IKERTUTAKO PERTSONAK, ATXILOTUAK ETA GORROTO DELITUEN BIKTIMAK

Zazpigarren urtez jarraian, Bizkaia da gorroto delituen gehiengoa biltzen duen lurraldea (%51). Udalerrien aldetik, zazpigarren urtez jarraian ere, lurralde historikoetako hiriburuak nabarmendu dira: Bilbo (n=47) eta Donostia (n=35), nahiz eta Gasteiz (n=14) laugarren postura mugitu den, batez ere kasuen jaitsieragatik (25 2023an), eta, bigarrenik, Irunen (n=20) kasuen igoera txikiagatik. Azken udalerrri hori hirugarren postuan geratu da, beraz. Halaber, Bizkaian Barakaldo (n=9) eta Santurtzi (n=8), eta Gipuzkoan Errearteria (n=7) eta Hernani (n=6) nabarmendu dira.

Nabarmentzekoa da Arabako lurralde historikoan eta, zehazki, hiriburuan, oso gertakari gutxi izan direla. Etorkizunari begira, Ertzaintzak lurralde horretan duen jarduera areagotzea komeniko litzateke, hurrengo txostenetan baieztatu edo baztertu ahal izateko gertakari kopuru txikia ez dela haiek zifra beltzetik ateratzeko zailtasunen ondorioa, baizik eta prebentzio eta disuasio jardueren emaitza.

Delituen lekuari dagokionez, hiriko bide publikoan (%38) egiten dira gorroto delitu gehien, eta horren atzetik daude ostalaritzako espazioak (%19), bizilekuaren inguruak (%8) eta etxea bera (%8). Deigarria da ziberespazioaren bidez izandako gertakari kopuru txikia⁴⁷.

Azken elementu horiei dagokienez, komeni da adieraztea aurreko urteekiko irizpide-aldaketak xehetasun-maila handiagoa eman diola gorroto delituen banaketa espazialaren azterketari. Etxeko

⁴⁶. Gorroto delituen inguruko 2018 eta 2022 urteen artean egindako epaietako ikerketa batean, nabarmendu da 510. artikulua (Zigor Kodea) modu zabalagoan aplikatzeko joera, 2015ean egin zen erreformaren ondoren delitu-motaren testu literala zabaldu izanak bultzatuta dagoela dirudi (LO 1/2015). GIMÉNEZ-SALINAS FRAMIS, A. (dir.)/LANDA GOROSTIZA, J.M. (dir.)/FERNÁNDEZ OGALLAR, B./GORDON BENITO, I./MARTÍN SILVA, U./MONTÓYA BAÑOS, M., "Análisis de casos y sentencias en materia de racismo, xenofobia, LGTBifobia y otras formas de

intolerancia 2018-2022", Ministerio de Inclusión, Seguridad Social y Migraciones - Observatorio Español del Racismo y la Xenofobia, Madrid, 2023, 89. Or. Nahiz eta ikerketak balizko delituzko gertakariak baino epaiak aztertzen dituen, badirudi epaileek eta Fiskaltzak adierazpeneko gorroto delitu mota portzentiaia oso handian hautatzen jarraitzen dutela.





espazioa (barnekoa eta pribatua) eta haren inguruak (kanpoko eta publiko) bereizteak, itxuraz, xehetasun garrantzitsuak ematen ditu tartean diren gertaeren inguruabarrei dagokienez. Gauza bera gertatzen da, eta baita maila handiagoan ere, ostalaritzako lokalak eta merkataritzakoak bereizterakoan. Lehenengoetan interakzio utilitarioak eta nahiko laburrak nabarmentzen dira; bigarrenetan, berriz, kontingentzia handiagoa da eta erregularitasun handiagoa du gorroto gertaerei dagokienez; beraz, espazioen karakterizazioak gertakarien probabilitateetan eragina duela uler daiteke.

Denbora-banaketari dagokionez, gertakari gehienak asteburuan gertatzen dira (ostiralean, larunbatean eta igandean); gertakarien %50a asteburuan gertatzen dira, eta arratsaldean eta gauean gertatzen dira (%71).

Egozpenei dagokionez, 244 dira guztira, gehienak (n=160) espainiarrak (%66), eta horietatik %84 Euskadikoak dira, batez ere Bizkaikoak (%46) eta Gipuzkoakoak (%35). Atzerriar jatorriko egotzitakoen artean (%34), Afrikatik (%59) eta Erdialdeko eta Hego Amerikatik (%36) etorritakoak nabarmentzen dira. Udal mailan, egotzitako pertsona gehienak Donostiatik (n=26), Bilbotik (n=25) eta Barakaldotik (n=21) datoz. Auzipetu gehienak gizonezkoak ziren (%79), 39 urtetik beherakoak (%60). Egotzitako adin txikikoen artean (%14), gehienak (%77) arrazoi arrazistengatik (%49) edo biktimaren sexu-orientazio edo identitateagatik (%46) egindako delituengatik egotzitako gizonak dira.

Bestalde, 2024an 25 pertsona atxilotu zituzten, aurreko urtean baino 5 gehiago, baina 2021eko kopuruaren antzekoa. Gehienak gizonezkoak ziren (%96), ia hirutik bi atzerritarrak (%64), ia heren bat (%28) Euskadikoak.

Gorroto delituen biktimei dagokienez, 2024an guztira 271 biktimizazio erregistratu dira, hau da, aurreko urtean erregistratutako biktimizazioak baino %11 gutxiago. Biktima gehienak, %67a, atzerritarrak dira, eta Afrikakoak eta Latinoamerikakoak dira ugariak (biktima guztien %33 eta %26, hurrenez hurren).

Euskaditik datozen biktima gehienak Bizkaikoak dira (%58), batez ere Bilbokoak (%15) eta Barakaldokoak (%9), gehienak gizonezkoak (%60) eta 18 eta 29 urte (%27) eta 30-39 (%25) eta 40-49 urte (%26) bitartekoak.

47. Are gehiago kontuan hartzen bada Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2023ko urteko memoriaren arabera (ikus II. eranskina) ikerketa-eginbideak esponentzialki hazi direla, neurri handi batean, IKTen bidez izandako gertakarien ondorioz.



1.5.5.

EUSKADIREN GORROTO MAPA ESTATUAREN TESTUINGURUAN

I. DATU GLOBALAK ETA JOMUGA KOLEKTIBOAK.

Euskadin 2024an delituzkoak izan daitezkeen 236 gorroto gertakari erregistratu diren arren, 2023an Euskadin delituzkoak izan zitezkeen 281 gorroto gertakariak kontuan izatea da interesgarria⁴⁸. Estatu osoko datuei dagokionez, Espainiako Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaerari buruzko 2023ko Txostena abiapuntutzat hartuta⁴⁹, Euskadin, Estatu osoan polizia-instantzietara iritsi ziren gorroto gertakarien %12a gertatu ziren (erregistratutako 2.268 gertakarietatik 271, aurreko urtean baino askoz gutxiago; zehazki, %33 jaitsi zen gertaera-kopurua). Ildo horretatik, datu horiek testuinguruan jartzeko, 2023 urtearen amaieran, Euskadik 2.216.302 biztanle zituen —Bizkaiak (1.159.368 biztanle), Gipuzkoak (729.722 biztanle) eta Arabak (338.594 biztanle)—, Estatuak dituen 48.619.695 biztanleetatik⁵⁰.

Ondorioz, Barne Ministerioak bildutako Estatuko datuek nolabaiteko sintonia islatzen dute, termino kuantitatiboetan, Euskadin 2023an izango ziren gorroto gertakariei dagokienez. Estatu osoari dagokionez, 2021ean eta 2022an gertakari horiek erregistratutako guztien %15 eta %22 baziren, ehuneko hori 2023an %12koa izatera pasatzen da.

Bestalde, beste urte batez, Barne Ministerioak idatzitako txostenak Estatuan egindako arau-hauste administratiboak islatzen ditu: 2023an 118 izan ziren (horietatik 1 Euskadin).

Espainiaren kasuan, 2023an, erregistratutako 2.268 gertakarietatik ia bi heren (% 65) biltzen dituzte jomuga-kolektiboen kategoria nagusiek (sexu-orientazioa, genero-identitatea eta arrazakeria-xenofobia). Era berean, kopuru hori askoz nabarmenagoa da Euskadin (2023ko zifretan, Barne Ministerioaren txostenaren arabera erregistratutako 271 gertakarien %79). Euskadin izandako gertakarien bi heren arrazakeria-xenofobiazkoak dira (%66), eta Espainian, berriz, %42 (%43, antigitanismoa gehitzen bazaio). Sexu eta genero identitateari dagokionez, aldea nabarmena da (%14a Euskadin eta %23a Espainian). Ideologiari dagokionez, kategoria hori hirugarren jomuga-talde kaltetuena da, bai Espainian (%16), bai Euskadin (%10); talde horretan, Espainia 3 puntu hazi da, aurreko urtearekin (%13) alderatuta. Alde hori aurreko serieetan baino txikiagoa da, eta joera bereizgarria moteldu du Estatuarekiko, ideologia/orientazio politikoak eragindako gertakariak hedatzeari dagokionez.

Aurreko urtekoaren aldean, Barne Ministerioaren txostenean hainbat kategoriek goranzko joera izan dute. Bereziki deigarria da desgaitasuna duten pertsonen aurkako gorroto delituen kasua, %113ko igoera izan baitu (23 2022an, 49 2023an). Antisemitismoak ere gora egin du (13 2022an, 23 2023an; %77ko igoera), eta horren atzetik datoz ijitoen aurkakoa (22 2002an, 37 2023an; %68ko igoera) eta belaunaldien arteko diskriminazioa (15 2022an, 21 2023an; %40ko igoera). Gora egin dute, halaber, neurri txikiagoan, ideologiagatikoak (2022an 245, 2023an 352; %44ko igoera), sinesmen edo praktika erlijio-soengatikoa (2022an 47, 2023an 55; %17ko igoera) eta, ia proportzio berean, sexu-orientazioagatikoa.

⁴⁸. Kontuan izan behar da Euskadi-Estatua konparazio hori 2023ko zifretan oinarrituta egingo dela, eta, hala, aldi baterako lerrokatuko direla gaur egun eskuragarri dauden datuak, bai Barne Ministerioarenak (Espainiako Gobernua-renak), bai Euskadiko gorroto gertakariei buruzko txostenen bilduma honenak.
⁴⁹. MINISTERIO DEL INTERIOR, "Informe sobre la evolución de los incidentes relacionados con los delitos de odio en España 2023", Ministerio del Interior - Gobierno de España, 2024.

⁵⁰. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus INEren web orria. Bertan, biztanleria egoiliarren zifra ofizialak jasotzen dira, kontsultatzeko: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=56946&L=0>.

⁵¹. 2024an, Euskadin, oro har, behera egin du gertakarien kopuruak, sexu-orientazio edo identitateak eta sinesmen edo erlijio-praktikek eragindako kasuan izan ezik. Hala ere, murrizketa horrek eragin txikiagoa du arrazakeriaren eta xenofobiaren kolektiboan, gorroto gertaeren %62 baitira, Espainiako %42aren gainetik.





eta genero-identitateagatikoak (2022an 459, 2023an 522; %14ko igoera) eta arrazakeria-xenofobiagatikoak (2023an 856 eta 2022an 755; %13ko igoera). Sexuagatiko edo generoagatiko diskriminazioak gora egin du pixka bat (189 2022an, 206 2023an; %9ko igoera). Gaixotasunagatiko diskriminazioak ez du aldaketarik izan (2022an 11, 2023an 11).

Euskadin, ordea, 2023an, oro har, jaitsi egin zen gertakarien kopurua kategoria guztietan. Hala ere, murrizketa horrek eragin txikiagoa du arrazakeriaren eta xenofobiaren kolektiboan, gorroto gertakarien %64 baitira dagoeneko, Espainiako %40 baino askoz gehiago⁵¹.

Ondorio gisa esan daiteke, oro har, bi txostenetan kolektiborik biktimizatuenak arrazakeria/xenofobia, sexu-orientazio eta identitatea eta ideologia direla (nahiz eta kopuru desberdinekin Euskadiren kasuan eremu ideologikoarekin alderatuta txikiagoak izan); joera komun gisa ikusten da oraindik ere aporofobiak biktimizatutako kolektiboek dagokienez biktimizazio eskasa dagoela, eta sinesmen eta praktika erlijiosoak ikerketa akademikoek adierazten duten zifra beltzetik ateratzeko zailtasun edota erresistentziak daudela.

II. DELITU TIPOLOGIAK.

2023an⁵², delitu-tipologiei dagokienez, bi txostenetan lesioak (%17 Espainian eta %32 Euskadin) eta mehatxuak (%19 Espainian eta % 24 Euskadin) dira tipologiarik nagusienak. Estatu mailan, gorroto diskurtsoa (%9), irainak (%7), kalteak (%6) eta tratu apalesgarria (%6) ere nabarmendu dira, neurri txikiagoan bada ere. Nolanahi ere, nabarmendu behar da Estatuko txostenean gertakarien laurdena baino gehiago (%27) “gainerakoak” tipologian jasotzen direla, eta horrek fideltasuna kentzen diola delitu-tipologiei buruz ematen den irudiari. Tipologien maparen zati handi baten zehaztugabetasun horrek eragina du, halaber, Euskadirekin alderatuta, azken horretan gorrotoaren diskurtsoa (%15), derrigortzeak (%13) eta tratu apalesgarria (%7) gailentzen baitira; irainak, berriz, delituzko maparen %3 baino ez dira.

III. BESTELAKOAK: BIKTIMAK, ERASOTZAILEAK, BANAKETA ESPAZIALA ETA KOMISIO-LEKUAK.

Biktimen profil demografikoari dagokionez⁵³, bi txostenetan, gehienak 18 eta 50 urte bitarteko gizonenak izan ziren (%59 Espainian eta %55 Euskadin) (kasuen bi heren baino gehiago, %68 Espainian eta %69 Euskadin). Jatorriari dagokionez, harrigarria da Espainian biktimen 62 espainiarrak izatea, eta Euskadin, berriz, kopuru hori %41era jaitea. Era berean, jatorri atzeritarreko biktimei dagokionez, bi kasuetan biktimizazio gehien pairatu zuten kolektiboak Afrikatik (%13 Espainian eta %33 Euskadin) eta Amerikatik (%16 Espainian eta %27 Euskadin) etorritako pertsonak izan ziren.

Erasotzaileen profil demografikoari dagokionez⁵⁴ bai Espainian, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, gorroto gertakariak batez ere gizonezkoek (% 78 Espainian eta % 79 Euskadin), gazte-helduek (% 63 Espainian

⁵². Nahi izanez gero, delitu-tipologiei buruzko Euskadiko zifren (2024ko zifrak) eta Estatuko zifren (2023ko zifrak) arteko konparazio “ezohiko” batean, lesioak (%17 Espainian eta %38 Euskadin) eta mehatxuak (%19 Espainian eta 20 Euskadin) dira tipologiarik nagusienak. Estatu mailan, gorroto diskurtsoa (%9), irainak (%7), kalteak (%6) eta tratu apalesgarria (%6) nabarmendu dira, neurri txikiagoan bada ere. Nolanahi ere, nabarmendu behar da Estatuko txostenean gertakarien laurdena baino gehiago (27) “gainerakoak” tipologian jasotzen direla, eta horrek fideltasuna kentzen diola delitu-tipologiei buruz ematen den irudiari. Tipologien maparen zati handi baten zehaztugabetasun horrek eragina du, halaber, Euskadirekin alderatuta, azken horretan gorrotoaren diskurtsoa (%13), derrigortzeak (%9) eta tratu apalesgarria (%8) gailentzen baitira; irainak, berriz, delituzko maparen %2 baino ez dira.

⁵³. Biktimen profil demografikoari buruzko Euskadiko (2024) eta Estatuko

(2023) zifren arteko alderaketa honetan, bi txostenetan gehienak 18 eta 50 urte bitarteko gizonenak izan ziren (%59 Espainian eta %60 Euskadin) (kasuen bi heren baino gehiago, %68 Espainian eta %78 Euskadin). Jatorriari dagokionez, harrigarria da Espainian biktimen %62 espainiarrak izatea, eta Euskadin, berriz, kopuru hori %34ra murriztea. Era berean, atzeritar jatorriko biktimei dagokionez, bi kasuetan biktimizazio gehien pairatu zuten kolektiboak Afrikatik (%13 Espainian eta %33 Euskadin) eta Amerikatik (%16 Espainian eta %27 Euskadin) etorritako pertsonak izan ziren.

⁵⁴. Erasotzaileen profil demografikoari buruzko Euskadiko (2024) eta Estatuko (2023) zifren arteko alderaketa honetan, Espainian eta Euskadin, gorroto gertakariak batez ere gizonezkoek (%78 Espainian eta %79 Euskadin), gazte-helduek (40 urtetik beherakoak: %63 Espainian eta %61 Euskadin) eta nazionalitate espainiarrekoek (%79 Espainian eta %65 Euskadin) eragin zituzten.



eta % 58 Euskadin) eta nazionalitate espainiarrekoek (% 79 Espainian eta % 78 Euskadin) izan zituzten.

Gertakari horien banaketa espazialari dagokionez⁵⁵ Barne Ministerioaren txostenak jasotzen duenez, maiatzean eta ekainean izan ziren gisa horretako gertakari gehien: 269 eta 227, hurrenez hurren. Euskadin, aldiz, gertakari gehien izan ziren hilabeteak maiatzean (30), abuztuan (26) eta irailean (30) izan ziren.

Bestalde⁵⁶, Espainian eta Euskadin, gertakari gehienak kalean gertatu dira (% 36 Espainian eta % 39 Euskadin)⁵⁷. Eredu pribatuan, aldiz, etxebizitzak (%20 Espainian eta %8 Euskadin) dira, neurri txikiagoan bada ere, gertakarien kokapen nagusiak. Azkenik, Internet bidez egindako gorroto delituak oso desberdinak dira, eta Espainiako proportzioa (%10) Euskadikoarekin (%4) alderatuta bikoiztu egiten da⁵⁸.

55. Euskadi (2024) eta Estatuaren (2023) arteko alderaketa horretan, Barne Ministeritzaren txostenak islatzen du istilu gehien izan ziren hilabeteak maiatza eta ekaina izan ziren, 269 eta 227 istilurekin, hurrenez hurren. Euskadin, aldiz, azaroan (27) eta abuztuan (25) jazo ziren istilu gehien.

56. Euskadi (2024) eta Estatuaren (2023) arteko alderaketa horretan, bai Espainian bai Euskadin, gertakari gehienak bide publikoan kokatzen dira (%36a Espainian eta %39a Euskadin). Eredu pribatuan, aldiz, etxebizitzak (%20 Espainian eta %8 Euskadin) dira, neurri txikiagoan bada ere, gertakari horien kokapenak. Azkenik, Internet bidez egindako gorroto delituak oso desberdinak dira, eta Espainiako proportzioa (%10) Euskadikoarekin (%4) alderatuta bikoiztu egiten da.

57. Honi dagokionez, esan beharra dago bi txostenetan erabilitako kategoriak ez direla homogeneoak. Espainian gorroto delituek izan duten bilakaerari buruzko 2023 txostenari dagokionez, ez dago "bide publikoa" kategoriarik zentzu hertsian, beraz, konparazioak egiteko erabili direnak dira "komunikazio-bideak" (hiriko bide publikoa, hiriko komunikazio-bidea, hiriartekoa, autobidearen zerbitzu-eremua, atsedeen-eremua, autobidea edo autobia, abelbidea/bidea/pista, beste komunikazio-bide bat eta trenbidea), eta "gune irekiak" (parke naturala edo gune babestua, hiri-eremu zabala, itsasoa, parkea edo hiri-lorategia, ibaiak, hondartza, landa-eremua, landa-eremua).

58. Gogorazi behar da Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa urtero egin izan dela Barne Ministerioaren txosteneko datuekin. Txosten hori beti aurreko urtekoa denez, "egiturazko" jauzia eragin du, urte desberdinak direlako. Hala ere, emandako informazioa baliagarria da, txosten honen historiaren hasieratik bertatik alderaketaren metodologia berdina berdina mantentzen den heinean. Hala ere, aurreko, lehen aldiz, urte bereko bi txostenen arteko konparazioa egin da testu nagusian (Ministerioaren 2023ko txostena eta Euskadiren 2023ko txostena), baina orri-oineko konparazio "ezohikoa" ere mantendu da, "jauzian" dauden aldaketak ere ikusteko (Ministerioaren 2023ko txostena, Euskadiko Txostenaren 2024koaren -gaur egungoaren- aldean).





2.



Datu ofizial eguneratuen esparru konparatua



Nazioarteko joeren eta joera konparatuen azterketak⁵⁹, aurreko txostenetan aipatu zen bezala, aukera ematen du gaiaren egoera eta etxeko ahaleginen balizko aurrerapena testuinguruan jartzeko eta modu egokiagoan neurtzeko. Jarraian, beraz, eskura dauden datu guztiak biltzen dira, gure kultura juridikoaren arloko herrialde garrantzitsu batzuek polizia-erregistroaren jarduera ez ezik haren trazabilitatea identifikatzeko egindako ahaleginak erakusteko. Beste behin ere, aurreratu daiteke trazabilitate osoko agertoki ideal bat oraindik ezin dela eskaini aztertzen ari diren herrialdeetako bati dagokionez. Baina, aldi berean, agerikoa da norabide horretan egindako bide bat dutela, deskribatzea komeni dena, etorkizuneko ereduak markatzen baitu. Informazio-bloke honen helburua da, nolana ere, Euskadiko gorroto gertakarien bilakaerari buruzko ondorioen oinarria eguneratzea, ikuspegi konparatu batean (ikus behan 4. atala).

2.1. Erresuma Batua

2.1.1. Errealitate enpirikoa, ESLA/OSCEtik ateratako datuen arabera

Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundeak (ESLA/OSCE) Erresuma Batuko gorroto delituei buruz itzultzen duen azken estatistika-informazioa, herrialde horretako agintari nazionalak erakundeari berari emandako datuen arabera, 2023. urteari dagokiona da⁶⁰. Guztira, **148.735 gorroto delitu** erregistratu dituzte polizia-erakundeek, hau da, aurreko urtean baino % 1 gutxiago. 148.735 gorroto delituetatik 140.561 Ingalaterran eta Galesen erregistratu ziren (%95), 6.257 Eskozian (%4) eta 1.917 Ipar Irlandan (%1).

Delitu kategoria zehatzei dagokionez⁶¹, nahiz eta onartu Erresuma Batuak dagokion banakapena bidali duela (hau da, delitu-tipologien arabera burututako delituen kopurua), OSCEk ez ditu zifrak publiko egin, eta, beraz, 2020tik lehen aldiz ez dago horri buruzko informazio gehiagorik. ESLAk argitu du hori Ingalaterran eta Galesen, Eskozian eta Ipar Irlandan erabilitako esparru juridiko eta arauemaile desberdinek eragin dutela.

⁵⁹. Ikus LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena, "Delitos de odio y estándares internacionales: una visión crítica a contra corriente", Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología, RECPC, 2020, 22-19 zk., passim.

⁶⁰. Sarbidea online: <https://hatecrime.osce.org/united-kingdom>

⁶¹. Aurreko urteetan bezala, argitu da poliziak erregistratutako gorroto delituek – ESLA/OSCEra bidaltzen direnak – ordena publikoko delituak barne hartzen

dituztela (public order offences), baina horietako batzuk erakunde horrek gorroto delitutzat hartu behar denari buruz ematen duen definiziotik kanpo geratuko lirateke. Hori dela eta, Erresuma Batuan 148.735 gorroto delitu erregistratu dira ESLA/OSCEren arabera, poliziak erakunde horri bidalitako gorroto delitu guztiak baino gutxiago (157.125).





Egilearen motibazioari dagokionez, 157.125 aurreiritzizkoak diren motibazioak aurkitzen dira erregistratutako delituetan, motibazio anizkoitzak zenbatu dira. Ondorengo sailkapenak delitu horietan dauden aurreiritzizko motibazioaren prebalentzia handienetik txikienera ordenatzen du:

- Arrazakeria eta xenofobia (103.405; 66%)
- Aniztasun funtzionala (12.375; 8%)
- Antisemitismoa (3.282; 2%)
- Zehaztu gabe (730; 0,5%)
- LGBTIren aurka (29.706; 19%)
- Musulmanen aurkakoa (3.866; 2%)
- Beste erlijio edo sinesmenak (3.059; 2%)
- Kristauen aurkakoa (702; 0,5%)

Aurreko urteetan ez bezala, eta polizia-egoitzan erregistratutako gorroto delituak alde batera utzita, OSCEk ez du daturik jasotzen Erresuma Batuan 2023an auzipetutako kasuen kopuruari eta emandako kondenen kopuruari buruz.

2.1.2.

Datuen eguneratzea: Eskozia⁶²

2023an, Eskoziako Gobernuak gorroto delituei aurre egiteko ekintza-plan edo estrategia berri bat jarri zuen abian (*Hate Crime Strategy for Scotland*, 2023-2026). Helburuen artean, Eskoziako poliziak erregistratutako gorroto delituei buruzko urteko lehen txostenaren argitalpena nabarmentzen da, 2024/25eko datuak jaso bezain laster ezagutaraziko dena⁶³. Lehen aldiz argitaratuko da osorik Eskoziako poliziak erregistratutako gorroto delituei buruzko informazio guztia. Izan ere, Eskoziako gorroto delituen aurkako lege integrala, *Hate Crime and Public Order (Scotland) Act* 2021, 2024ko apirilaren 1ean sartu zen indarrean. Hain zuzen ere, Legearen 15. artikulua arabera, Eskoziako poliziak erregistratutako gorroto delituei buruzko etorkizuneko txostenak argitaratuko dira, aurreiritziek larriagotutako delituak eta Legean jasotako gainerako delituak barne (adibidez, gorrotoa sustatzeko delituak edo *stirring up hatred offences*).

Orain arte, Eskoziako Gobernuak bi ikerketa baino ez zituen argitaratu – 2021ean eta 2023an –, Eskoziako poliziak erregistratutako gorroto delituen izaerari buruzko ondorio eta estatistika giltzarriak ematen zituztenak⁶⁴. Hala ere, 2024ko maiatzean datuak eguneratu ziren Eskoziako poliziak 2022/23an erregistratutako gorroto delituen bolumena eskaini ahal izateko⁶⁵. Hala, **Eskoziako poliziak 6.257 gorroto delitu erregistratu ditu 2022/23an** (2021/22ko datuekin alderatuta, %10eko beherakada).

Delitu bakar batek gorroto marka ugari izan ditzakeela argi utzita (guztira, 6.671), badakigu %56 (3.767) arraza-larriagotzeak zirela, %25 (1.637) sexu-orientazioagatiko larriagotzeak, %9 (598) desgaitasunagatiko larriagotzeak, %7,5 (501) erlijioagatiko larriagotzeak, eta %2,5 (168) identitate transgeneroagatiko larriagotzeak.

⁶². Atal honetan jasotakoaz gain, ikus Eskoziako gorroto gertakariak ALLEN/ZAYEDen duten ibilbidearen laburpen bat, "Hate crime statistics (Number 8357)", House of Commons, 2024, 43-48 or.

⁶³. SCOTTISH GOVERNMENT, "Hate Crime Strategy for Scotland. Delivery Plan", Scottish Government, 2023, 14 or.

⁶⁴. SCOTTISH GOVERNMENT, "An updated study into the characteristics of police recorded hate crime in Scotland", Justice Analytical Services (Scottish Government), 2023. Egia esan, aurreko txostenaren jarraipen-azterlan bat da: SCOTTISH GOVERNMENT, "A study into the characteristics of police recorded

hate crime in Scotland", Justice Analytical Services (Scottish Government), 2021.

⁶⁵. SCOTTISH GOVERNMENT, "Hate crimes recorded by the police in Scotland, 2022-23", Scottish Government, 2024. Kontuan izan 2025eko udaberrian antzeko beste txosten bat argitaratuko dela 2023/24an erregistratutako gorroto delituen bolumenari buruz. Horren ondoren, urteko txostenak egingo dira lehen aldiz, eta txosten horiek, *Hate Crime and Public Order (Scotland) Act* 2021aren 15. artikulua eskatzen duen azterketa zehatza izango dute 2024/25 urtetik aurrera.



Delitu-tipologiaren arabera, jokabide mehatxagarri edo iraingarri gisa erregistratutako gorroto delituak nabarmentzen dira (*threatening or abusive behaviour*), gorroto delitu guztien erdia baino gehiago biltzen baitute (3.450; %55). Jarraian, arrazagatik jokabide larriagotua (*racially aggravated conduct*) nabarmentzen da gainerakoen gainetik (643; %10). Azkenik, eraso arruntaren delitua (*common assault*) nabarmendu behar da, gorroto delitu gisa erregistratutako gainerako delituetatik kuantitatiboki ere aldentzen baita (639; %10)⁶⁶.

Azken datuen arabera⁶⁷, 2023/24 urtean, polizia 299.780 delitu edo crimes erregistratu zituen guztira, eta 174.073 delitu edo offences erregistratu zituen. Delituen edo offences-en barruan hainbat delitu-familia daude, eta horien artean dago gizalegearen aurkako delituak (*antisocial offences*), delitu edo offence guztien %27 hartzen dutenak (47.808). Eta, gizalegearen aurkako delituen artean, arraza-kontuengatik larriagotutako jokabidea azpikategoria (*racially aggravated conduct*) 1.572 delitu edo offences izango litzateke guztira. Hau da, arraza-kontuek areagotutako jokabidea gizalegearen aurkako delitu guztien %3 da, eta Eskoziako polizia 2023/24an erregistratutako delitu edo offences guztien %0,9.

Inputazio kopurua⁶⁸ Eskoziako Fiskaltzari (*Crown Office and Procurator Fiscal Service* edo, bere sigletan, *COPFS*) jakinarazi zaizkionak, Eskoziako polizia edo beste agentzia batzuek, **5.992 inputazio izan dira gorroto delituengatik 2023/24an**⁶⁹.

Inputazio horietan jasotako aurreiritzizko astunketen kopuruagatik⁷⁰, zera topatzen dugu: arraza (3.392 egozpen astunduak); sexu-orientazioa (1.818 egozpen astunduak); aniztasun funtzionala (903 egozpen astunduak); erlijioa (523 egozpen astunduak); eta identitate transgeneroa (84 egozpen astunduak).

Arrazagatik astundutako jazarpen eta portaera-delituak (*racially aggravated harassment and behaviour*) 930 inputazio hartzen ditu (%27). Gainerako 2.462 egozpenak (%73) arraza-larriagotzea dakarten beste delitu batzuei lotuta daude, hala nola mehatxu- edo irain-portaerari (*threatening or abusive behaviour*), hau da, delitu guztien %51ri (1.734 inputazio).

Azkenik, komeni da ikustea zenbat inputaziok bultzatzen duten fiskalek jarduketa judizialak hasteko erabakia hartzea (*Court proceedings*). Kategorien arabera:

- Arrazak larriagotutako 3.392 inputazioetatik, 2.592 (%76) judizializatu egin ziren. Gainera, beste 380 inputaziotan (%11) jatorrizko akusazioa bertan behera geratu zen, baina akusatu beraren aurkako beste inputazio bat egon zen, eta kasu beraren barruan, eroritako lehen inputazioan jasotako informazioa erabili ahal izan zuen. Nahi izanez gero, termino erlatiboagoetan bada ere, 2.972 egozpenez (%88) hitz egin daiteke, jarduketa judizialek bideratu dutenak.

66. «Eraso arrunta» kategoria izan ezik, hori delitutzat edo crime-tzat hartzen baita, aurreko biek delitu edo offences modalitate bana adierazten dute. Gogoan izan txosten mota horietan crime erabiltzen dela larritzat jotzen diren zuzenbide penalaren urraketei dagokienez (adibidez: giza hilketak edo eraso larriak), eta offence, berriz, larritasun txikiagoko beste urraketa batzuei dagokienez (adibidez: ordena publikoaren alterazioa edo jazarpena). Larritasunaren irizpidea ezar litekeen gehieneko kondenarekin lotuta egongo da.

67. Xehetasunez, ikus SCOTTISH GOVERNMENT, "Recorded crime in Scotland, 2023-24", Scottish Government, 2024.

68. Gogoan izan behar da ez dela inputatutako pertsonen kopurua edo inputazio horien oinarri diren gertakarien kopurua, baizik eta ematen diren gorroto

delituen egozpen kopurua (hate crime charges). Beraz, pertsona bakarrak kar-gu bat edo gehiago ekar ditzake berarekin.

69. Xehetasunez, datu honetarako eta ondoren garatuko diren beste batzuetarako, ikus CROWN OFFICE & PROCURATOR FISCAL SERVICE, "Hate crime in Scotland 2023-24", COPFS, 2024.

70. Kontuan izan egozte bakoitzak zentzuzko larritze bat baino gehiago ekar dezakeela; beraz, datuak kategoria babestuen arabera banakatzeko orduan, egozpen bakar bat zenbatuko da tartean dauden kategoria guztietan (adibidez: biktimak beltz eta homosexual batek arraza-egozpen eta sexu-orientazioagatik egozpen gisa kontatzen du).





- Orientazio sexualak larriagotutako 1.818 inputazioetatik 1.469 (%81) azkenean judizializatu egin ziren. Gainera, beste 172 inputaziotan (%9) jatorrizko akusazioa bertan behera geratu zen, lehen aipatutako balizko ondorioekin. Beraz, 1.641 egozpen (% 90) jarduera judizialetera bideratu direla esan daiteke.
- Aniztasun funtzionalak larriagotutako 903 egozpenetatik 760k (%84) azkenean judizializatu egin ziren. Gainera, beste 71 inputaziotan (%8) jatorrizko akusazioa bertan behera geratu zen, lehen aipatutako balizko ondorioekin. Beraz, 831 egozpen (%92) jarduera judizialetera bideratu direla esan daiteke.
- Erlijioak larriagotutako 523 inputazioetatik 417k (%80) azkenean judizializatu egin ziren. Gainera, beste 41 inputaziotan (%8) jatorrizko akusazioa bertan behera geratu zen, lehen aipatutako balizko ondorioekin. Beraz, 458 inputazio (% 88) jarduketa judizialetera bideratu direla esan daiteke.
- Azkenik, identitate transgeneroari buruzko 84 inputazioetatik 60k (%71) azkenean judizializatu egin ziren. Gainera, hiru inputaziotan (%4) jatorrizko akusazioa bertan behera geratu zen, lehen aipatutako balizko ondorioekin. Beraz, 63 inputazio (%75) jarduketa judizialetera bideratu direla esan daiteke.

2022/23an 79.173 pertsonaren aurkako karguak aurkeztu ziren Eskozian, eta horrek 68.067 kondena eragin zituen⁷¹. Horien guztien⁷² artean, arraza astundua/adierazlea⁷³ duten 708 kondena zenbatu ziren, **588 sexu-orientaziokoa⁷⁴, 214 aniztasun funtzionalekoa⁷⁵, 208 erlijioakoa⁷⁶, eta 24 identitate transgenerokoa⁷⁷**. Hazkundera orokorra da guztietan, 2021/22ko datuekin alderatuz gero. Berezik deigarria dirudi aniztasun funtzionalaren kasuan %80ko igoerak, eta %71koak identitate transgeneroaren kasuan.

Delitu-tipologiaren arabera banaketari dagokionez, non aurreko astuntze/adierazleetako bat agertzen den, kondena gehienak delitu multzo zehatz batean biltzen dira (*antisocial offences*). Horien artean, kategoria nagusia mehatxuzko edo erasoko portaerarena izango litzateke (*threatening and abusive behaviour*), honako banaketa hau duena astuntze/adierazle bidez:

- Arrazagatiko astundua/adierazlea duten kondena guztien 550. Hau da, arrazagatiko astundua/adierazlea duten delitu guztien –*offences eta crimes* (708)– %78.
- Sexu-orientazioko astundua/adierazlea duten kondena guztien 525. Hau da, sexu-orientazioko astundua/adierazlea duten delitu guztien –*offences eta crimes* (588)– %89.
- Aniztasun funtzionaleko astundua/adierazle dutenak kondena guztien artean 180 dira. Hau da, aniztasun funtzionaleko astundua/adierazle duten delitu guztien –*offences eta crimes* (214)– % 84.

⁷¹. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi SCOTTISH GOVERNMENT, "Criminal proceedings in Scotland 2022-23", Justice Analytical Services (Scottish Government), 2024.

⁷². Kontuan izan behar da jasotzen diren datuek legez jasotako eta egoitza judizialean frogatu eta baloratu diren astuntzeak ez ezik, aniztasun funtzionalari, arrazari, erlijioari, sexu-orientazioari edo identitate transgeneroari buruzko beste adierazle batzuk ere jasotzen dituztela, inputazioen baten testuingurua hobeto ulertzen laguntzen dutenak, eta delituaren izaera zehazteko giltzarri izan daitekeen informazioa gehitzen dutela. Criminal History System (CHS) izeneko datu-basean, polizia eta fiskaltzak edozein unetan sar ditzakete adierazle horiek. Beraz, ondorengo datuek astuntze eta identifikatzaileen bolumen homogeneoa adierazten dute. Era berean, nabarmendu behar da delitu bategatik (crime/offence) ezarritako kondena bati astuntze/adierazle bat baino gehiago lotzen bazaio (adibidez, arraza eta erlijioa), bi astundua/adierazle horiek zenbatuko direla.

⁷³. 575 kondenatan, kondenatua eta arraza-astundua/adierazlea hautematen zaion pertsona gizonakoa da (%81), eta 133tan, berriz, emakumezkoa (% 19).

⁷⁴. 493 kondenatan, kondenatua eta sexu-orientazioaren astundua/adierazlea hautematen den pertsona gizona da (%84), eta 95, berriz, emakumea (%16).

⁷⁵. 177 kondenatan, kondenatutako pertsona eta aniztasun funtzionalaren astundua/adierazlea hautematen den pertsona gizonakoa da (% 83), eta 37tan, berriz, emakumezkoa (%17).

⁷⁶. 191 kondenatan, kondenatutako eta erlijio-astundua/adierazlea duen pertsona gizonakoa da (%92), eta 17 emakumezkoa (%8).

⁷⁷. 21 kondenatan, kondenatua eta nortasun transgeneroaren astundua/adierazlea hautematen zaion pertsona gizonakoa da (% 87,5), eta 3 emakumetan, berriz, gizonakoa (%12,5).



- Erliziozko astundua/adierazlea duten kondena guztien 174. Hau da, erlijiozko astundua/adierazlea duten delitu guztien *–offences eta crimes* (208)– %84.
- Desgaitasuneko astundua/adierazlea duten kondena guztien 19. Hau da, desgaitasuneko astundua/adierazlea duten delitu guztien *–offences eta crimes* (24)– %79.

2.1.3.

Beste datu batzuen eguneratzea: Ipar Irlanda⁷⁸

Ipar Irlandako Polizia Zerbitzuak (*Police Service of Northern Ireland* edo, bere siglen arabera, PSNI) argitaratutako azken txostenean, Ipar Irlandako poliziak berak 2023ko urriaren 1etik 2024ko irailaren 30era bitartean izandako gorrotoaren ondoriozko gertakari edo delitu guztiak jasotzen dira⁷⁹.

Hala, datu horiek geroago garatu aurretik, 2023/24an **3.347 gorroto gertakari** zenbatu ziren (%11ko igoera), eta guztira **2.125 delitu** erregistratu ziren gertakari horiei lotuta (%3ko igoera).

Motibazio arrazistari dagokionez, 1.787 gorroto gertakari zenbatu ziren (%53), eta 1.161 delitu (%55) gertakari horiei lotuta. Hain zuzen ere, poliziak 2023/2024an erregistratu zituen delitu guztien % 1,2 dira 1.161 delitu arrazistak. Horietatik 641 pertsonen aurkako indarkeria-delituen kategorian sartzen dira (*violence against the person offences*), hau da, (%55); 488 delitu lapurreta-kategoriarekin (bizilekua bortxatuz egindako lapurreta barne) eta kalteekin (*theft [including burglary] & criminal damage*) lotzen dira, hau da, (%42); eta 32 delitu gainerako delituen kategorian generikoarekin (*all other offences*) bat datoz, hau da, (%3).

Arrazoi sektarioei dagokienez, 951 gorroto gertakari zenbatu ziren (%28), eta 597 delitu (%28) gertakari horiei lotuta⁸⁰. Hain zuzen ere, 597 delitu sektarioak 2023/2024an poliziak erregistratu zituen delitu guztien %0,6 dira. Horien artean, 313 delitu pertsonaren aurkako indarkeria-delituen kategorian sartzen dira, hau da, %52; 268 delitu lapurreta-kategoriarekin (bizilekua bortxatuz egindako lapurreta barne) eta kalteekin, hau da, %45; eta 16 delitu gainerako delituen kategorian generikoarekin bat datoz, hau da, %3.

⁷⁸. Atal honetan jasotakoaz gain, ikus, halaber, Ipar Irlandako gorroto gertakarien ibilbidearen datu eguneratuak dituen laburpen bat: ALLEN/ZAYED, "Hate crime... op. cit., 49-50. or.

⁷⁹. Aurrerantzean, PSNI, "Incidents and crimes with a hate motivation recorded by the Police in Northern Ireland. Update to 30th September 2022", Police Service of Northern Ireland (PSNI) Statistics Branch, 2022-an jasotako datu estatistikoaren zerrenda emango da. Kontuan izan behar da txosten hau hiru hillean behin egiten dela, eta izaera bereko aurreko txostenak ordeztzen dituela. Era berean, urteko txosten bat ere egiten da – pixka bat zehatzagoa azterketan (adibidez, biktimaren adina eta sexua)–, 2022ko abenduan argitaratu dena, eta azken urte fiskalean (financial year) lortutako datuetan oinarritzen dena, hau da, 2021eko apirilaren 1etik 2022ko martxoaren 31ra. Azken txosten honi ere aipamen puntualak egingo zaizkio: PSNI, "Trends in hate motivated incidents and crimes recorded by the Police in Northern Ireland 2004/05 to 2021/22", Police Service of Northern Ireland (PSNI), 2022.

⁸⁰. Xehetasun handiagoz, 1.787 gorroto gertakari arrazisten artean, Poliziak 1.062 erregistratu zituen, horiei lotutako delitu batekin edo gehiagorekin (%59); 725ean, berriz, gertakariaren inguruko inguruabarrek ez zuten ahalbidetzen delitu bat burutu zela ondorioztatzea (%41). Horiei lotutako delitu batekin edo gehiagorekin erregistratutako 1.062 gertakarietatik, aurrez aipatutako 1.161 delituak ateratzen dira. Aldiz, urte fiskalean oinarritutako urteko txostenaren arabera (2023ko apirila eta 2024ko martxoa), 1.353 gorroto gertakari arrazista zenbatu ziren, eta gertakari horiei lotutako 839 delitu erregistratu ziren. 1.353 gorroto gertakari arrazisten artean, poliziak 754 erregistratu zituen horiei lotutako delitu batekin edo gehiagorekin (%56), eta 599an, gertakariaren inguruko inguruabarrek ez zuten ahalbidetzen delitu bat burutu zeal ondorioztatzea (%44). Horiei lotutako delitu batekin edo gehiagorekin erregistratutako 754 gertakarietatik, aurrez aipatutako 839 delituak ateratzen dira.





Motibazio homofoboari dagokionez, 358 gorroto gertakari zenbatu ziren (%11), eta 218 delitu (%10) gertakari horiei lotuta⁸². Hain zuzen ere, 218 delitu homofoboak 2023/2024an poliziak erregistratu zituen delitu guztien %0,2 dira. Horien artean: 186 delitu pertsonaren aurkako indarkeria-delituen kategorian sartzen dira, hau da, %85; 28 delitu lapurreta-kategoriarekin (bizilekua bortxatuta egindako lapurreta barne) eta kalteekin, hau da, %13; eta 4 delitu gainerako delituen kategoria generikoarekin bat datoz, hau da, % 2. *Fedearen/erlijioaren, aniztasun funtzionalaren eta transfobiaren motibazioari* dagokionez, hiru hilean behingo argitalpen-txosten honetan jasotako datuak apalagoak dira. *Fedeari/erlijioari* dagokionez, 111 gorroto gertakari zenbatu ziren (%3), eta 75 delitu (%4) gertakari horiei lotuta⁸³.

Aniztasun funtzionalari dagokionez, 79 gorroto gertakari zenbatu ziren (%2), eta 43 delitu (%2) gertakari horiei lotuta⁸⁴. Transfobiari dagokionez, 61 gorroto gertakari zenbatu ziren (%2), eta 31 delitu (%1) gertakari horiei lotuta⁸⁵.

Eskurgarri dagoen azken txostena kontutan izanik⁸⁶ Ipar Irlandako Fiskaltza Publikoko Zerbitzuarena (*Public Prosecution Service for Northern Ireland* edo, bere siglengatik, PPS edo PPSNI). Zerbitzu horrek 2023ko apirilaren 1etik 2024ko martxoaren 31ra bitarteko epea hartzen du, eta jasota dago PPSk 340 kasu jaso zituela,⁸⁷ poliziak gorroto delitu gisa identifikatuko zukeela (%19ko beharakada aurreko aldiarekin alderatuta). Kategoriatan babestuaren arabera, polizia-sailkapenaren irizpideei jarraiki, 127 kasu arrazari lotu zitzaizkion (%37), 88 sektarismoari (%26), 42 homofobiari (%12), 42 fedeari/erlijioari (%12), 20 motibazio anizkoitzari (%6), 16 aniztasun funtzionalari (%5) eta 5 transfobiari (%2). Inplikaturako kategoriatan nagusiaren arabera⁸⁸, kasuen % 49 pertsonaren aurkako indarkeria gisa sailkatuta egongo lirarteke (*violence against the person*), %20 kalte-delitu gisa (*criminal damage*), %18 ordena publikoko delitu gisa (*public order*) eta % 13 zehaztu gabeko beste delitu-talde batzuk bezala (*all other offence groups*).

Gainerakoan, kasu bakoitzean pertsona batek baino gehiagok parte hartu ahal izan duten heinean, norbait formalki akusatzeko erabakia pertsona horietako edozeinen aurka zuzendu daiteke. Beraz,

81. Xehetasun handiagoz, 951 gorroto gertakari sektarioen artean, poliziak 561 erregistratu zituen, horiei lotutako delitu batekin edo gehiagorekin (%59), 390an, berriz, gertakariaren inguruko inguruabarrek ez zuten ahalbidetzen delitu bat burutu zeel onorioztatzea (%41). Urte fiskalean oinarritutako urteko txostenaren arabera (2023ko apirila - 2024ko martxoa), gorroto sektarioko 1.091 gertakari zenbatu ziren, eta gertakari horiei lotutako 730 delitu erregistratu ziren. 1.091 gorroto gertakari sektarioetatik, poliziak 670 erregistratu zituen, horiei lotutako delitu batekin edo gehiagorekin (%61); 421etan, berriz, gertakariaren inguruko inguruabarrek ez zuten ahalbidetzen delituri burutu izana onorioztatzea (%39). Horiei lotutako delitu batekin edo gehiagorekin erregistratutako 670 gertakarietatik, aurrez aipatutako 730 delituak ateratzen dira.

82. Xehetasun handiagoz, gorroto homofoboko 358 gertakariaren artean, poliziak 201 erregistratu zituen horiei lotutako delitu batekin edo gehiagorekin (%56), 157tan berriz, gertakariaren inguruko inguruabarrek ez zuten ahalbidetzen delitu bat burutu zeel onorioztatzea (%44). Urte fiskalean oinarritutako urteko txostenaren arabera (2023ko apirila - 2024ko martxoa), gorroto homofoboko 384 gertakari zenbatu ziren, eta 241 delitu gertakari horiei lotuta. Gorroto homofoboko 384 gertakarietatik, poliziak 213 erregistratu zituen, horiei lotutako delitu batekin edo gehiagorekin (%55); 171n, berriz, gertakariaren inguruko inguruabarrek ez zuten ahalbidetzen delituri burutu izana onorioztatzea (%45). Horiei lotutako delitu batekin edo gehiagorekin erregistratutako 213 gertakarietatik, aurrez aipatutako 241 delituak ateratzen dira.

